

AIARALDEA *hemen*



POKEMON GO:
**Sakelako joko ospetsuaren
sukarra ez da desagertu
eskualdean 18-20 or.**

BERRIAK SUPERMERKATUAK:
**Lan baldintza prekarioei
buelta emateko borrokan
dihardute langileek 6-7 or.**



**“LGTB+ mugimenduari
bultzada emateko
sortu dugu
Laudion Harro”**



AMURRIO 2
**Abian dago Aresketa
Ikastolaren Araba
Euskaraz jaia**

Ekimen ugari egingo dituzte
datozen hilabeteetan. Logoa
eta leloa aurkeztu dituzte

LAUDIO 4
**Ortuzainaren etxera
mugituko dute udal
liburutegia**

Laudioko kulturaren
epizentroa bihurtu nahi dute
Lamuza parkea

AIARALDEA 8
**Greba eta epaiketak,
Tubacexeko lan heriotzak
direla eta**

Greba egin zuten iragan astean
eta Ernaiko sei kide epaituko
dituzte

AIARALDEA 12-13
**Eskualdeko hautagaiak,
igandeko hauteskunderen
esperoan**

Almudena Otaola, Garazi
Dorronsorro eta Txema Urkijori
elkarrizketak, barruan

KULTURA 22
**Urduñako musika
ondarea balioan jartzeko
mahaingurua egin dute**

80. hamardatik gaur egun arte
hirian egondako mugimendua
izan dute hizpide

KIROLA 28-29
**Bi kirol zita garrantzitsu
egongo dira datorren
asteburuan**

Urduñako Mendi Lasterketa
eta Gorobel Ibilaldia egingo
dituzte igandean

RPS 101/19
GO
enea
ODONTOLOGIA

Kalitatezko eta konfiantzazko odontologia,
zugandik hurbil

Araba kalea 2, Laudio • 944 200 310 • 690 341 413

**NEURRIRA
EGINDAKO
PRODUKTUAK
OPARITU**

KAMISETAK, USB-AK,
BOZGORAILUAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU ///

**NAHIERAN
PERTSONALIZATUTA**



GUREKIN
ERE
EUSKARAZI



G! Graf!k

**PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///**

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

herriz herri

Amurrio

Amurrion ospatuko da datorren urteko Araba Euskaraz jaia. Egun osoko festa egingo dute herrian 2020ko ekainean, Aresketa Ikastolak antolatuta. Hala ere, ekimena “urte osoan zehar” garatuko dutela aurreratu dute. Logoa eta leloa aurkeztu dituzte dagoeneko, eta laster iragarriko dituzte lehen ekintzak, “Araba mundura zabaltzeko, euskaraz”.

Hasi da Araba Euskaraz jaia



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Apurka apurka ari da forma hartzen 2020ko Araba Euskaraz jaia. Iragan ekainean iragarri zuten datorren urteko edizioa Amurrion egingo zela, Aresketa Ikastolaren eskutik. Iragan astean, aldiz, prentsaurrekoa egin zuten hezkuntza zentro horretako kideek, egitasmoaren inguruko xehetasun gehiago emateko.

Hasi da jaia

Mezu nagusi bat zabaldu nahi izan dute agerraldi hartan: Amurrioko Araba Euskaraz jaia ez dela ekaineko igande bateko ospakizuna izango, edo ez soilik hori behintzat. “Amurrioko Araba Euskaraz hasi egin dela esan dezakegu”, ziurtatu zuen Eneko Aldai Fernandezek.

Aresketa Ikastolako lehendakariaren hitzetan, “Amurrion zein Aiaraldean” barrena zabalduko den “euskarazko ekimen kulturala” prestatu dute. “Kultur ekosistema berri baten sorrera” sustatzea dute helburu, hemendik eta datorren ekainera arte egingo dituzten hainbat jarduera baliatuta. “Kultur ekimenak sortu, artistak ezagutzera eman eta ikusle berriak gonbidatu nahi ditugu, azken hauek kultura ezagutzeko, euren artean komunikatzeko eta transmisioa bermatzeko aukera izan dezaten”.

Gauzak hala, euskara eta kultura uztartzea da Aresketa Ikastolaren asmoa, dinamika “ireki, inklusibo eta moderno” baten bidez.

"Darabagu"

Ekimenaren logoa eta leloa ere aurkeztu dituzte. “Darabagu” izango da jaiaren leloa. “Aditz trinko berria da”, azaldu du Aldaik, “hitz-joko bat da, Araba mundura euskaraz eraman nahi dugula adierazteko



Iragan astean egin zuten ekimena aurkezteko prentsaurrekoa, Amurrioko San Anton plazan. **Aresketa Ikastola**

balio duena. Euskal komunitatea irudikatzea ere garrantzitsua iruditzen zitzaigun, eta horregatik gehitu diogu azken 'gu' hori”.

Logoa

Logoa garatzeko, aldiz, sormen tailer bat burutu zuten ikastolan. “Ehun pertsona elkartu ziren ikasle, ikasle-ohi, irakasle eta diseinatzaileen artean. Identifikatutako helburuetatik mapa bat garatzeari ekin genion.

Idea andana atera ziren saio horretan, eta uzta oparotatik hautatu dugu logoa izango dena”, kontatu du ikastolako lehendakariak. Hainbat tamaina eta koloretako loreak irudikatu dituzte, “herrian eta eskolan dagoen aniztasuna” irudikatzen.



Eneko Aldai Fernandez
Aresketa Ikastola

“Kultura ekosistema berri baten sorrera bultzatu nahi dugu”

"Zertzeladaz zertzelada"

Logoa eta leloa aurkeztuta, Araba Euskaraz jaiaren lehen ekintzak prestatzeari ekin diote Aresketa Ikastolako kideek. “Zertzeladaz zertzelada joango

gara urtea apaintzen, ekimen txikiak antolatzen eta euskararen alde olatu ederra biltzen”, iragarri du Aldaik. Olatu horretara batzera gonbidatu nahi dituzte herritarrek.



Artziniega

Euskara ikasteko taldea osatu dute eta parte hartzeko aukera dago oraindik

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Euskara ikasteko Artziniegako taldea abian dago jadanik. Ez zekiten ziur taldea sortzerik izango zuten edo ez, horretarako gutxiengo jende kopurua batu behar zelako, baina azkenean lortu dute klaseak herrian bertan ematea.

Astelehen, asteazken eta os-

tegunetan izango dira saioak, 10:00etatik 12:00etara Kulturara etxean.

Amurrioko AEKko kideak arituko dira irakasle. Informazio gehiago eskuratzeko, beraz, eurekin harremanetan jarri behar dira interesdunak, 945892334 edo 663076240 telefonoen bidez edo amurrio@aek.eus posta elektronikora mezu bat bidalita.

Txarriboda egingo dute Artziniega Museoan larunbatean



Urtero egiten dute Txarriboda museoan. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Txarriboda egingo dute datorren azaroaren 9an -larunbata- Artziniega Museoan. Eguerdik hamabietan hasiko dira txerrikiak zatitzen, eta bi ordu arituko dira horretan. Modu horre-

tan, bertaratzen direnek odoloste zein txorizoak prestatzeko metodo tradizionalak gertutik ezagutzeko aukera izango dute. "Ekintza erabat doakoa izango da", jakinarazi dute museoko arduradunek, "gainera, museoa bisitatzeko aukera izango dute gerturatzen diren bisitariek".

Bilera irekiak egiten hasi dira Artziniegako emakumeak, euren eskubideak aldarrikatzeko

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bilerak egiteari ekin diote Artziniegako hainbat emakume. Hilabeteko azken igande guztietan dute biltzeko asmoa, 12:00etan udaletxe zaharrean. Azaldu dutenez, herriko jaientan jazotako erasoek bultzatuta eman dute pausoa. "Eraso ho-

riek gertatu eta hurrengo egunean herriko emakume batzuk lotu ginen erantzun bat emateko. Playback txapelketan eman zen erantzun hori", azaldu dute emakumeek, "orduak konturatu ginen oraindik herrian lana egiteke zegoela eta ezinbestekoa zela mota, adin eta erlijio ezberdinetako emakumeak biltzea".

Azaldu dutenez, "hainbat adi-

netako emakumeak" bildu nahi dituzte, "talde plurala" osatuaz. Herrian berdintasunaren aurka egon daitezkeen arazoei eta feminismoari buruz hitz egingo dute bileretan. Helburu nagusi bat ere markatu dute: erasoaren aurkako protokoloa osatzea, "herrian zein inguruan gertatzen diren erasoek erantzun bat eman ahal izateko".

URTEZAHAR GAUA

2019

HOTEL ORDUÑA PLAZA

Ospatu gurekin urte berria!

AFARIA + DOAKO EDANA

* tarifak barne hartzen ditu edariak eta doako barra
* doako barra 2:00ak arte
* erreserba egiteko epemuga: abenduak 9
* 15 eguneko aldez aurreko ordainketa
* jatetxeak ekitaldia bertan behera uzteko eskubidea du, gutxieneko mahaikide kopurua bermatu ezin bada

Aperitiboa

Foie-mousse artisaua ogi txigortuan
Hasierakoak

Otarraintsalada Star Ruby
pomeloarekin, eta ahuakatea saltsa
arrosarekin brandy erara

Alkatxofa-krema, txirlekin eta
jengibre fresko olioarekin

Bieiraz betetako hostopila koral
kremarekin
Plater nagusiak

Itsas zapoa cava erara, berakatz
fresko konfitatuzko olioarekin eta
porru pastelarekin

Solomoa Pedro Ximenez
saltsarekin, patata krema eta
Idiazabal kurruskariarekin

Etxeko pasteltxo,
txokolate eta turroi sorta

139€ BEZ barne

HOTEL ESKAINTZA

OSTATUA ETA COSARIA + CALA AFARIA + DOAKO BARRA
179€ pertsonako

OSTATUA ETA COSARIA + CALA AFARIA + DOAKO BARRA
+ ZIRKUITU BAT
199€ pertsonako

HOTEL ORDUÑA PLAZA

Balneario

945 569 038
info@hotelordunaplaza.com

USHUAIA Dionisio Aldama, 20
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41

Astearretik ostiralera: 9:30/19:00 (EGUERDIAN ERE ZABALIK) Larunbatetan: 9:00/14:00

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · LURRINDEGIA · OSAGARRIAK



ALISATZE BRASILDARRA

Formolik gabeko alisatze iraunkorra kalitatezko komestika naturalarekin. Zortzi asteko iraunaldia.

HITZORDUA HARTZEKO:

945 89 08 41

Behin-betiko depilazioa · Sauna · Solariuma

Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería

herriz herri

Laudio

Udal liburutegi berria Lamuza Parkeko Musika Etxean jarri nahi dute



Musika Etxea guztiz berritu dute barrutik, baina oraindik ez da guztiz erabiltzen. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Prensaurrekoa eskaini dute Laudioko EAJk eta PSE-EEK gobernuan igaro dituzten lehen 100 egunak baloratzeko. Aipatutako gaien artean, aurreratu dute urratsak ematen ari direla Udal Liburutegia Lamuza Parkeko Musika Etxe zaharrean -"ortuzainaren etxean", alegia- instalatzeko.

Aurreko legealdian adostu zuten EAJk eta EH Bilduk Zubiko

Etxean kokatzea liburutegi berria, baina azterketa teknikoak burutu eta gero, konturatu dira horretarako obra handia eta garestia beharrezkoa dela. "Egitura indartu beharko genuke, pisu gehiegi hartuko baitu eta egurrezkoa da" adierazi du Ander Añibarro alkateak.

Ideia hori baztertu eta gero, helburua da liburutegi berria Musika Etxe zaharrean jartzea. Eraikin osoa hartuko luke egitasmo berriak eta liburuak maileguan

hartzeko aukera eman ez ezik, umeentzako eta ikasteko guneak izango ditu.

"Lamuza Parkea berriro osatuko dugu, herriko kultura guztia bertan biltzeko eta egokituz jo dugu aukera hau", argitu du alkateak.

Oraindik gainerako talde politikoekin eztabaidatu beharreko ekimena da, baina sozialistek eta jeltzaleek ziurtatu dute akordioa eta adostasuna lortzeko borondatea dutela.

Ermualdeko Etxea urte osoan egongo da zabalik

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Abenduaren 13rako ireki nahi du udalak Ermualdeko Etxeko taberna-jatetxea, egun horretan Santa Luzia eguna ospatuko baita. Azpiegitura horren kudeaketa lehiaketara atera du tokiko erakundeak. Interesdunek 15 egun naturaleko epea izango dute eskaintzak aurkezteko, urriaren 30etik aurrera. Udal-jatetxeko bulegoetara jo behar du horretarako, 8:30etik 13:00era bitartean.

Lehiaketa irabazten dutenek 3.600 euroko kanona (2.844 euro gehi %21ko BEZa) ordaindu behar du urtero jatetxea eta taberna baliatzeagatik. Ander Larrinaga zinegotziak nabarmendu du errenta hori "oso txikia" dela, esleipenaren helburua ez delako diru bilketa, Ermualdeko ingurua "zerbitzuz eta gi-

roz hornitzea" baizik. Larrinagak azaldu duenez, jatetxe-tabernaren kudeatzaileek eraikinean bizitzeko aukera izango dute, horretarako egokitutako espazio bat baitago etxean. "Esleipenak 10 urteko gehieneko epea izango du hasieran, baina baldintzak unean une berrikusiko dira".

Egunero zabalik

Udalak jakinarazi duenez, taberna-jatetxeak ordutegi jarraia izango du. 9:30etik 18:30era egon behar du zabalik. Ekainaren 1etik irailaren 30era, aldiz, 9:00etik 21:00era eskaini behar du zerbitzua.

Horrez gain, tabernaren kudeatzaileek bertako produktuekin eginiko pintxoak eskaini behar dituzte, eta tokiko produktuen salmentara bideratutako gune bat egokitu behar du dute.



Duela gutxi berritu dute eraikina. Laudioko Udala

7 proiektutan inbertituko dituzte parte hartzerako 200.000 euroko kopurua

Testua
Aitor Aspuru Saez

200.000 euro bideratuko ditu udalak herritarrek proposatutako zenbait proiektuetara: Arrañon aisialdirako gunea eraikitzea, Gardeako Santa Kruz basiliza konpontzea, parke bat estaltzea herrigunean, Lamuza parkeko irisgarritasuna eta Ardantzazarreko argi publikoa atontzea, eta Kultura Plan Estrategikoa osatzera.

50 ideia baino gehiago

Ander Añibarro alkateak azaldu duenez, herritarren 50 ideia baino gehiago jaso dituzte, baina aipatutako zazpiak hautatu dituzte.

Batzuk baztertu behar izan dituzte 60.000 euroko aurrekontua gainditzen zutelako, beste batzuk ez ziren proiektuak, baizik eta jarduerak edo programak. Denak aztertuko dituzte, aldarrikapen historikoak barne.

2021ean ideia lehiaketa horren eredu aldatuko du udalak. Añibarro jakinarazi duenez, deialdia nolakoa izango den hausnartzen ari dira.

Alkateak gaineratu du 200.000 euro Laudioko Udalaren inbertsio gaitasunaren %10 inguru dela eta hurrengo urteari begira hobetzea espero dutela. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak Laudioko Udalari aurreratu dio 12 milioi euroko ekarpena izango duela FOFELaren bitartez.

Zurrunmuru arrazisten kontrako txokolate jana egingo dute azaroaren 17an

Testua
Julen Solaun Martinez

Euskadiko Lurraldeetako zurrunmuru arrazistak salatuz txokolate jana antolatuko dute azaroaren 17an Laudioko Herriko Plazan, 17:00etatik aurrera, CEAR-Euskadik (errefuxiatuak laguntzeko batzordea) eta Arabako Foru Aldundiak antolatu-

ta. Laudioko Udalak azaldu du ekitaldia "Bizilagunak" kanpian kokatzen dela, eta aurten laugarren urtea izango da horrelako "kultura arteko bizikidetzaren aldeko" ekitaldiak antolatzen direla.

Ekitaldian parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea, eta horretarako azken eguna azaroaren 7a izango da.

Aiara

Aguñiga gaztandegiak lehenengo postua lortu du Gernikako Urriko Azken Astelehenean



Jose Ramon Martinez ekoizlea, saria eskuan duela. Busturialdeko Hitza

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Aginagako Aguñiga gaztandegiak lehen saria irabazi du aurtengo Gernikako Urriko Azken Astelehenean. Sari-tutako gazta erdia 6.600 euroren truke saldu zen. Pacharan Zoco destilategiak erosi zuen; nahiz eta ordaindutako kopurutik "euro bat ere ez" den ekoizleen eskuetara helduko.

Dena den, salmentak mantentzeko eta indartzeko orduan, hain oihartzun handiko azoka batean irabazteak "asko" laguntzen duela aitortzen du Jose Ramon Martinez ekoizleak.

Beraz, oso pozik agertu da lortutako emaitzarekin, batez ere, azokaren garrantzia dela eta: "Gernikara beti zoaz zer-

bait ona egiteko ilusioarekin, oso azoka ona da".

Hala ere, hain erakustoki handian parte hartu ahal izatea ez da erraza, Martinezen arabera, "lehiaketan parte hartu ahal izateko salmaharia ere izan behar delako".

Gernikaz aparte, aurten Amurrio eta Zallako azoketan ere lortu dute Aginagako lehenengo postua. Pasa den urteetako joera ere antzekoa izan zen: "Ez da erraza urte askoan zehar kalitatea mantentzea; esnea produktu bizia da, egunero dago aldatzen, hainbat faktoreren eragina dago".

Irabazterako orduan beste gakoetako bat gazta mota egokia aukeratzea da: "Azoka batzuetan onduago dagoen gazta dute gustuko, beste batzuetan freskoago dagoena".

Orozko

Artiacheko emakumeetako baten kaleratzea baliogabetu du epaileak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Artiachek kaleratutako sei emakumeetako bik epaiketa izan zuten urrian, eta argitaratu berri dituzte sententziak. Emakumeetako baten kaleratzea baliogabetzat jo du epaileak.

Bigarren kasuan, aldiz, Aldi baterako lanerako enpresaren eta Adam Foods-en (Artiacheko jabea den enpresa) alde egin du epaileak, langilea "pasibo labo-

ranean" zegoela argudiatuta. Enpresan 180 egun lanean dararamaten aldi baterako langileek "pasibo laborala" delakoa osatzera pasatzen dira. Egoera horretan, kontratu mugagabea duten pertsonen ordezkapenak egiteko baino ez dituzte deitzen.

Hori da sententziak jasotzen duena, LABek azaldu duenez. Gauzak hala, sindikatuak salatu du frogatua geratu dela zein den enpresaren funtzionatzeko modua: langileak denbora tarte ba-

tzuetan lan egin gabe mantentzea legeak jarritako mugei iskin egin ahal izateko eta, modu horretan, kontratu mugagabe bat eskaini behar ez izateko.

Mobilizazio eguna deitu dute Artiachetik kaleratutako langileek datorren azaroaren 14rako. 18:00etan kotxe karabana abiatuko dute Orozkoko Gorbeia kaltetik. Laudiora joango dira, bertan egingo baitute manifestazioa, 19:00etan Lamuza plaza-tik hasita.



www.faktoria.eus
Errotari kalea
4-8 pabilloia,
Laudio (Araba)

ARRASTIAK FAKTORIAN

Azaroak 16
Larunbata

Agustin Alkahat
(Heleta, Behe Nafarroa)
20:00etatik 22:00etara



AFALTZEKO AUKERA EGONGO DA

Tokiko burgerra + Arabako patata frijituak

Taberna zerbitzua

Ebeko ogia, mahonesa, uhaza, tomatea, behi-haragia edo tofua, gazta, su goxotan erretako tipula eta arrautza eta mostaza.

Bazkideak: 3 euro / Ez-bazkideak: 5 euro / Haurrak: doan



arrate
gestoria • aholkularitza • aseguruak

Utzi zure
errenta 19
profesionalen
eskuetan

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

Errenta-aitorpenaren plangintza
gurekin egin ezazu.

20 urte baino gehiagoko esperientzia

erreportajea

Greba feministak piztutako langile borroka



Borrokandaude Berriak supermerkatuetako langileak, euren lan baldintzak hobetzeko. Hiru lanuzte egin dituzte dagoeneko, eta gehiago egingo dituztela iragarri dute. Iragan martxoaren 8ko greba feminista inflexio puntua izan zen saltoki-kateko beharginentzat, egun horretan atera baitziren kalera lehendabiziko aldiz.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Iragan martxoaren 8ko Greba Feminista iltzatuta geratu da eskualdeko jende askoren memoria kolektiboan. Milaka emakume atera ziren kalera, bigarren urtez jarraian, “bizitzak erdigunean” jartzeko asmoarekin.

Milaka grebalari horien artean zeuden Berriak supermerkatuetako langileak. Eurentzat ere egun berezia izan zen hura, baina bazuen sinbolismo estra bat, lehen aldia zelako saltoki-kate horretako behargin moduan kalera ateratzen zirela. “Une horretan ez genuen sindikaturik atetik. Grebara batu ginen behingogatik bazegoelako batzen gintuen zerbait: emakumeak ginela

eta nazkatuak geundela”, oroitu du Ludi Temiñok, “lanik txarrenak guretzako ziren beti, larunbatak eurentzako -gizonezkoentzako- ziren soilik, horregatik erabaki genuen kalera ateratzea”.

Hasiera batean pertsona bakan batzuen ideia zena segituan zabaldu zen supermerkatuetako langilegoaren gehiengora. “Behargin gehienak atera ginen kalera, baina dendak ez ziren itxi, zuzendaritzak gutxiengolanpostuak bermatu zituelako”.

Greba feminista hura izan zen Berriak supermerkatuetan gerora garatu den borrokaren pizgarria. “Ahalduntzeko balio izan zigun. Batasun bat zegoela ikusi genuen egun hartan, eta ikusi genuen batasun hori mantentzea lortzen bagenuen agian gau-

zak aldatzeko gai izango ginela. Orain arte Berriak-eko langileak banaka joaten ginen zuzendaritzarekin borrokatzera. Batzuetan nahi zenuena lortzen zenuen, baina gehienetan ez”.

Borroka eta garaipena

Handik bi hilabetera eman zuten lehen pausoa, maiatzean. “Hauteskunde sindikalak deitu genituen, beldur askorekin”, azaldu du Temiñok. Gehiengo absolutua lortu zuten. Langileen ordezkari izendatu zuten orduan Temiño, Garbiñe Aretxaga eta Ismael Del Olmo lankideekin batera. Hirurek osatzen dute langile batzordea, LAB sindikatuko kide bezala.

Komitea osatuta, aldarrikapenak plazaratzeari ekin zioten lan-

Uztailean akordioa erdietsi zuten langileek eta zuzendaritzak, baina bertan jasotako puntuak ez dira bete, beharginen ustez

gileek. Lan egutegiarena zen eskaera nagusia. “Ez zen hitzarmenean zehaztutako lanaldia betetzen. Behargin bakoitzak aparte-ko 70-80 ordu egiten ditu urtean”, azaldu du Temiñok, “guztira urtebete egin dugu lan doan, 25 urte hauetan sartu ditugun aparteko ordu guztiak batzen baditugu”.

Gauzak hala, lanuzteak egiteari ekin zioten beharginek uda hasieran, eta handik aste batzuetara lortu zuten akordioa zuzendaritzarekin. Enpresak honako gauza hauek onartu zituen: langileek urtero 5 larunbat libre izatea, baita zubi bat ere, eta norberak hartzeko bi egun libre. Horrez gain, sartutako aparteko ordu guztiak aintzat hartzea adostu zuten bi aldeek.

Akordio hori, baina, ez da bete,

erreportajea

langileen ordezkariak salatu dutenez. "Azaroan gaude eta orain 80 langileek pilatutako aparteko ordu guztiak libratzea jada ez da bideragarria. Enpresak horrekin jokatu du orain arte: langileek urte batetik bestera pasatu behar izan dituzte oporrak. Libratzeko egunak eskatu ditugunean data horietan ezinezkoa zela esaten digute, beste data batzuk proposatu eta berdin".

Langile bat kaleratzea

Horri guztiari beste gertakizun bat gehitu behar zaio: langile baten kaleratzea. "Urriaren 2an bota zuten. Kontratu mugagabea egin behar zioten legez; eta enpresak, hori egin ordez, kontratua deuseztatu zuen", salatu dute beharginak, "kaleratutako kideak epaiketara jo beharko du eta kalte-ordaina emango diote bertan. Zuzendaritzak edozertarako erabiltzen du dirua, gutxiengo lan baldintza batzuk bermatzeko izan ezik". Gauzak hala, langile hori berriz onartzea eskatu dute. "Jendea behar da enpresan, eskuak falta dira. Lan karga oso handia jasaten dugu".

Horrez gain, lan hitzarmeneko puntu gehiago urratzen direla salatu dute langileek. Hainbat aldarrikapen jarri dituzte mahai gainean: kaleratutako langilea berriro onartzea, kategoria profesionalak berrikustea, garraio gastuak ordaintzea, lanerako arropa egokia ematea, oporraldien eta gehiegizko orduen aferei soluzioa bilatzea, 2020ko egutegia uztailean lortutako akordioaren arabera osatzea, lan-kargaren azterketa egitea, lan ordutegi bidezkoak izatea, probintzia batetik bestera aldatzeagatik hitzarmenak zehazten duen plusa jasotzea eta ordu-erregistroaren gaineko informazioa jasotzea hileroko.

Horregatik guztiagatik ekin zioten urrian ordubeteko lanuzteak egiteari. Iragan asteko ostegunean egin zuten azkena, dendak itxita egon ziren 12:00etatik 13:00etara.

Lanuzteekin jarraituko dute

Langileen ordezkariak behin baino gehiagotan saiatu dira zuzendaritzarekin biltzen, baina momentuz ez dute erantzunik jaso. Gauzak hala, protestekin jarraituko dute, azken orduko albisterik gertatzen ez baldin bada behintzat. "Larunbatero egingo ditugu mobilizazioak. Azaroaren 9 eta 16an ordubeteko lanuzteak egingo ditugu, 23an bi ordukoa egingo dugu, 30an lau ordukoa eta abenduaren 7an, gauzak horrela jarraitzen badu, egun oso greba egingo dugu".



Amurrio, Laudio, Ugao eta Bilboko saltokietan egin dituzte lanuzteak azken asteetan, eta gehiago egiteko asmoa dute beharginek. Aiaraldea.eus



4
denda ditu
guztira Berriak
kateak:
Laudiokoa,
Amurriokoa,
Ugaokoa eta
Bilbokoa.
Azken hori BM
frankiziaren
denda da

70-80
pertsona inguru
daude Berriak-
en saltokietan
lanean

**ILE- APANDEGIA
BIZARGINTZA**
H&H
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9:00-13:30 / 16:00-20:00
LARUNBATETAN
9:00-13:00
Pasa zaitetz hitzordurik gabe!
BATZALARRIN, 5 LAUDIO

FEMINISMOAREN AGENDA

AZAROAK 6 LAUDIO 17:30

Irakurketa Klub Feminista: "Nik sinisten dizut" (Josune Muñoz)
LIBURUTEGIAN



AZAROAK 9 ARTZINIEGA 10:00

Autodefentsa feminista ikastaroa
(Maitena Monroy)
UDALETXE ZAHARREAN



AZAROAK 15 ARTZINIEGA 10:00

Aiaraldeko emakumeen
Berdintasun topaketa
ARTZINIEGAKO MUSEOAN



AZAROAK 15 LAUDIO 19:00

Aiaraldea Ekintzen Faktoriako
feminismo ildoaren asanblada irekia
AIARALDEAKO BULEGOAN



AZAROAK 25 AIARALDEA

Indarkeria matxistaren aurkako
nazioarteko eguna
HERRI GUZTIETAN



AZAROAK 30 LAUDIO 10:00

Belaunaldien arteko topaketa
(Solastiar elkartearen eskutik)
KASINOAN



AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TO-
RIA**

info+ labur.eus/feminismoa aiaraldean



erreportajea

Pasa den astean 24 orduko greba egin zuten langileek Tubacex enpresaren Aiaraldeko fabriketan, zuzendaritzari segurtasuna eta prebentzioa serio ez hartzea leporatuta, udan bi langile hil ostean. Horrez gain, Ernaiko sei kide epaituko dituzte lan heriotza horiek salatzeako ekimenak burutzeagatik. 5.200 euro baino gehiago eskatzen dizkiete kalte ordainetan.

Tubacexeko segurtasunak aurrez aurre jarri ditu langileak eta zuzendaritza



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Urriaren 29an Tubacex enpresako sindikatu guztiek deialdi bateratua egin zuten grebara jotzeko 24 orduz. Langileen ordezkariak adierazi zuten pozik zeudela beharginen erantzunarekin eta enpresako arduradunei egotzi diete eurek proposatutako segurtasun eta prebentzio neurriak bazterzea. Sindikatuko bozeramaileek jakinarazi zuten behin betiko kontratua zuten beharginak ez zirela joan lanera eta ekoizpena geldituta zegoela.

Grebaren arrazoiei dagokienez, langileen erakundeek azaldu dute uztailean Laudioko faktorian gertatutako istripuaren ostean-herriko gazte bat hil zuela-, hasi zirela segurtasun eta prebentzio neurrien zerrenda osatzen zuzendaritzarekin eztabaidatzeko. Irailean beste langile bat zendu zen bere lanpostuan, baina, hala ere, sindikatuen aburuz, enpresak ez ditu aintzat hartu eurek iradokitako aldarrikapenak eta ez du urratsik egin norabide horretan.

Finean, ELAK, STATEK, CCOOK, USOK, LABek eta Independenteek honakoa eskatu dute: benetako prebentzio eta mantenua, langile baten falta aurreikusita dagoenean beste batekin betetzea hutsune hori eta azpiegiturak hobetzea, "txatarra hutsa baitira batzuk". Hau da, inbertsioak azpiegituretan eta mantenu tresnerian, prekaritatea ekiditeko planteamenduak eta segurtasunean zein prebentzioan arreta. Horrela, sindikatuek zuzendaritzari aurpegiatu diote segurtasun, prebentzio eta mantenu politikak ez aldatzea, nahiz eta udan bi langile hil diren euren ardurak betetzen.

Gainera, udan jazotako bi heriotzek lan giroa gutxi berotu bazuten, urrian zenbait astez mimo bat egon zen Amurrio eta Laudioko fabriketan txartel horiak erakusten EPlak -norbera babesteko ekipamendua-



jarrita ez zituztenei. Tubacexeko behargin ugari irain moduan hartu zuten hori eta, berez, ekimena txantxatzen bazuten askok hasieran, gerora haserrea piztu du.

Horren isla izan zen Laudioko atean egindako mobilizazioan greba egunean gertatutakoa, hainbat langilek pegatina jarri baitzuten "gure segurtasuna ez da pailazokeria" leloarekin.

Enpresaren erantzuna

Sindikatuaren akusazioen aurrean, Tubacex enpresako zuzendaritzak, ordea, argudiatu du segurtasunean gastua bost aldiz biderkatu dela azken urteotan, 12 milioi euroko kopurura heldu arte. Horrez gain, enpresa arduradunek gehitu dute medikua eta 6 erizain dituztela lanaldi osoz, beharginak ahalik eta lasterren artatzeko. Tubacex taldearen ustez, oso enpresa gutxik egiten dute ahalegin hori.

Bestalde, zuzendariak aipatu dute prebentziorako trebakuntzan 36.000 ordu eta 1,8 milioi euro inbertitu direla azken 6 urteetan eta aurten %33an handi-

Urrian zehar mimo bat egon da Amurrio eta Laudioko fabriketan txartel horiak erakusten EPlak -norbera babesteko ekipamendua- jarrita ez zituztenei. Horrek haserrea eragin du zenbait langilerengan



Ernaiko sei kide epaituko dituzte heriotzak salatzeako ekimenengatik. Aiaraldea.eus

tu dutela formakuntza denbora. Halaber, Tubacex taldeak nabarmendu nahi izan du eskualdearekin duen konpromisoa: azken 10 urteetan produktu estrategikoak ekoizteko 100 milioi euroko inbertsioa gauzatu du eta 100 lanpostu sortu ditu.

Bukatzeke, zuzendaritzak gogoratu du bere efektu ekonomikoa eskualdean oso handia dela, 1000 langile izateaz gain, harremana duelako erakunde publikoekin, ikastetxeekin eta merkatariekin.

Ernaiko kideen epaiketa

Ernaiko kideen epaiketaren afera ere dago mahi gainean. Bi epaiketa izango dituzte hurrengo hilabeteetan gazte antolakunde horretako sei kidek. 5.200 eurotik gorako kalte-ordain eskaerari egin behar diote aurre aipatutako bi lan heriotzak salatzeako eginiko ekimenak direla eta. Ernaik salatu duenez, enpresako zuzendaritza izan da salaketak jarri dituen, "langile elkartasuna kriminalizatzeko helburuarekin".

argazki erreportajea

Mikologiari lotutako egitasmoak burutu dituzte Urduñan, Amurrion eta Laudion azken bi asteetan. Ziza eta onddoekin eginiko pintxoak izan dira protagonista nagusiak. Igandean izan zen azken zita, Laudion. Hainbat jarduera egin zituzten goizean zehar Aldai plazan: dastaketak, gastronomia lehiaketak eta erakustaldiak, besteak beste.

Mikologia izan da protagonista nagusi azken bi asteburuetan

AZOKA

Udazkeneko Mikologia Azokaren XXXVIX. edizioa ospatu zuten igandean Laudioko Aldai plazan. Hainbat jarduera egin zituzten bertan: perretxiko eta ziza erakusketak, haur eta gazteentzako marrazki lehiaketa, gastronomia lehiaketa eta pintxo dastatzea. Trikitilariak aritu ziren plaza girotzen.



PINTXOAK

Ziza eta onddoekin eginiko pintxo lehiaketak egin dituzte Urduñan, Amurrion eta Laudion.



Antonio Muñoz

ERAKUSTALDIK

Ziza eta onddoen erakustaldi ugari egin dituzte azken asteetan. Bildutako aleak sailkatzeko saioak ere burutu dituzte.



elkarrizketa

“Pentsatzeko eta maitatzeko modu asko daude, eta errespetatu behar dira”

LAUDION HARRO LGTB+ TALDE SORTU BERRIKO KIDEAK DIRA **AIARA ROMAN DE LA TORRE** (Laudio, 2004) ETA **JULEN ANDA LOPEZ** (Laudio, 2004). KOLEKTIBOA SORTZEAREN ARRAZOIEN ETA ESKU ARTEAN DITUZTEN PROIEKTUEN INGURUAN MINTZATU DIRA.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Duela hilabete sortu zenuten Laudion Harro taldea. Zer dela eta?

Julen Anda Lopez: Laudion horrelako talde bat sortu behar zela ikusi genuen. Ez zegoen horrelakorik, eta LGTB+ mugimenduari bultzada emateko beharra ikusi genuen. Whatsappetik hitz egiten hasi ginen. Bilera bat egin genuen gero, taldea sortu eta beharrezko gauzak antolatzeko. Talde irekia da, Aiaraldeko pertsona orori zabaldua dagoena.

Eskualdeko mailako taldea da orduan?

J.A.L.: Printzipioz Laudioko esparrura mugatuko dugu, baina Aiaraldeko herritar orori dago zabalik. Orain zortzi pertsona gaude taldean, Laudio, Urduña eta Orozkokoak.

Zer nolako ekimenak antolatuko dituzue?

J.A.L.: Hilean behin biltzea da gure asmoa. Hitzaldiak antolatu nahi ditugu, Bilboko eta beste toki batzuetako jendearekin. Kultur Etxean egingo ditugu solasaldi horiek. LGTB+ kolektiboko kideak nola sentitzen garen eta ingurua nola ikusten dugun izango dugu hizpide.

Datorren urteko ekainean egun osoko egitaraua prestatuko dugu. Bi mobilizazio egingo ditugu, goizean bata eta arratsaldean bestea. Tailerrak eta bestelako ekintzak ere egingo ditugu horretan.

Eskualdean sortzen den lehen LGTB+ kolektiboa da zuena.

J.A.L.: Bai, eskualdean ez dago besterik. Instagramen bidez ikusi genuen beste herri batzuetan bazeudela horrelako taldeak. Hori ikusita animatu ginen pausoa ematera.

Aiara Roman de la Torre: Jende asko dago LGTB+

komunitatearen barruan, baina ez du esaten, lotsa ematen diolako. Orain taldea sortu dugula jendea animatzea gustatuko litzaiguke, beldurrik gabe.

Nola ikusten duzue eskualdeko egoera sexu aniztasunari dagokionez? Aurrerapausoak eman dira azken urteetan?

J.A.L.: Aiaraldean oraindik badago pausoa ematera ausartzen ez den jendea. Talde honi esker baliteke horretara animatzea, gure laguntzarekin, beldurra albo batera utzita. Laudioko eskoletan susmatzen dugu ematen direla LGTB+ komunitatearen aurkako erasoak. Horiek ekidin nahi ditugu.

A.R.D.: Eskolan ematen diren sexologia klaseetan askotan ez da aipatzen LGTB+ komunitatea ere existitzen dela. Ni txikia nintzenean ez nuen LGTB+ mugimenduari buruzko ezer ikasi. Orain apur bat gehiago sartzen ari dira, baina ez asko. Gustatuko litzaiguke

elkarrizketa



“Datorren urteko ekainean egun osoko egitaraua prestatuko dugu”

gehiago esatea LGBT+ kolektiboko pertsonak ere pertsonak garena.

Gogoratzen dut DBHko 1. mailan nengoela sexologia klase bat eman zigutela. Homosexual, transexual eta bisexual terminoak irakatsi zizkiguten, baina askoz gehiago zeuden: bisexuala, pansexuala... termino horiek aipatu nituean arraro begiratu zidaten, eta asmatzen ari nintzela esan zidaten. Azaldu nuenean jendeak ez zuen sinesten, ez zutelako buruan ez zaizula zertan beti kontrako sexu norbait gustatu behar. Pentsatzeko eta maitatzeko modu asko daude, eta errespetatu behar dira.

J.A.L.: Batzuek onartzen dute, baina beste batzuek ez. Eskoletan oraindik sumatzen da indarkeria hori.

A.R.D.: Hori bizitzen ari den pertsonaren azalean jartzea eskatuko nioke nik jendeari. Ume asko iraintzen eta zirikatzen dituzte sexu bereko pertsona bat gustoko izateagatik. Nik ezagutzen ditut pertsona transe-

xualak, baina ez dute aditzera ematen, jendeak esango duenaren beldur direlako. Hori askotan gertatzen da.

Zuen adineko jendearekin ere gertatzen da hori?

J.A.L.: Bai, ikusi ditugu kasuak. Ikastetxeak gehiago inplikatu beharko lirateke horrelakoak ekiditeko.

“Ume asko iraintzen dituzte sexu bereko pertsona bat gustuko izateagatik. Ezagutzen ditugu pertsona transexualak, baina ez dute aditzera ematen, jendeak esango duenaren beldur direlako”

Eta eskolatik kanpo, non ikusten dituzue horrelako gabeziak?

J.A.L.: Kalean eta jaietan ere ikusi dira horrelako portaerak. Telebistan ere horrelako kasuak agertzen dira. Jendearen pentsamendua aldatu behar da. Horrez gain, udalek ere kanpaina gehiago egin beharko lituzkete herritarrek kontzientziatzeko.

Duela gutxi sortu da Harro, Euskal Herrietako TransMariBiBollo plataforma. Plataforma horren oinarriekin bat egiten duzue?

J.A.L.: Bai, mugimendu horren alde gaude. Ez dugu onartzen Bilbon EPOAk (Harrotasun Egunaren antolatzailen Europar Elkarteak) inposatu nahi izan duen ekimena.

Taldearen aurkezpenik egiteko asmoa duzue?

J.A.L.: Oraindik ez dugu zehaztu, baina gustatuko litzaiguke egitea, taldera jende gehiago batu dadin.

A.R.D.: Instagram kontua dugu jendea gurekin harremanetan jartzeko: @laudion_harro. 15-18 urte bitarteko gazteok osatzen dugu taldea, baina beste adin batzuetako pertsonak egotea ere gustatuko litzaiguke. Jende orok kontaktu dezake gurekin.

erreportajea

Apirileko Espainiako hauteskundeetatik hilabete gutxi igaro arren, emaitzak nekez errepikatuko dira datorren igandean. Ezkerreko botoa mobilizatzeko zailtasunak egongo dira gobernua osatzeko zailtasunen, Kataluniako egoeraren eta Javier Marotoren ausentziaren ondorioz. Ikuskete dago horrek zer eragin izango duen bozketan.

Igandeko emaitzen zain



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Apirilean Espainiako Kongresurako hauteskundeek erronka argia ekarri zuten Aiaraldera: botoaren mobilizazioa eskuineko alderdien (PP, Ciudadanos eta Vox) baturaren aurka. Egoera horretan bi aldagai garrantzitsu zeuden: bozka ahalik eta eraginkorra izatea ordezkaritza lortzeko Madrilen eta Javier Maroto (eskuineko baturaren sustatzailea eta PPren diskurtso gogorraren bultzatzailea) aulkirik gabe uztea.

Sortutako larrialdi sentsazioak eragin argia izan zuen eta parte hartzearen gorakada ia %7koa izan zen apirileko hitzorduan. Esaterako, posta bidezko botoa %150ean handitu zen (San Prudentzioko zubiarri esker).

Edonola ere, 6 hilabete eskas igarota, ikuspegia zeharo aldatu da. Zentro eta ezkerreko alderdiek ez dute erakutsi gaitasunik sortutako mobilizazioaren bultzada baliatzeko eta gobernua osatzeko. Ondorioz, galdera da ezkerreko zenbat bozkatzailek utziko dioten hauteslekuetara joateari, aurreko adostasun falta ikusita.

Batzuek Vox alderdiaren igoeran, dudarik gabe, jasoko dute motibazioa berriro bozkatzeko, baina ezkerrearen etsipena agerikoa da. PSOE zein Elkarrekin Podemosen emaitzetan hori nola islatuko den ikusi beharra dago.

Horri gehitu behar zaio ezkerreko aukerak gehiago zatitu direla eta, Araban aurkeztuko ez bada ere, Txema Urkijo audioarra izango dela Iñigo Errejónen Más País alderdiko zerrendaburua Bizkaian.

Bestalde, boto ezkertiarra asintzeko beste aldagai bat ere desagertu da. Apirilean Javier Marotoren hautagaitza erabakigarria izan zen. Aldiz, igandeko hitzorduan Marotok Segovian jarraituko du, hango senataria izendatu baitzuten Ara-

ban eserlekurik gabe geratu eta gero. Bere ordez Mari Mar Blancok hartu du lekua, eta PPren eskuin sutsua bada ere, ez du sortzen Marotok piztutako aurkakotasuna.

Maroto efektuari esker, bereziki, EH Bilduk Kongresuan ordezkaria jartzea lortu zuen, PPren kalterako, eta igandeko emaitzek esango dute koalizioak arrakasta hori mantenduko duen.

Apirilean larrialdi sentsazioak eragin argia izan zuen eta parte hartzearen gorakada ia %7koa izan zen. Posta bidezko botoa %150ean handitu zen

Katalunia

Aipatutakoaz gain, 'Procès'-aren epaia ere sartu da hauteskunde lasterketan. Erreferendum antolatu zuten buru politikoen aurkako espetxe zigorrak Katalunia zurrumbiloan murgildu dute eta hedabideetan oso presente egon da gaia. Ikusez nago bilakatu da, ordea, Espainiar Estatuko botoak ere eskuinera mugitu dituela kataluniarren desobedientziak.

Eskualdean gatazka politikoa hori modu ezberdinetan azaleratu daiteke; estatuko alderditan eskuineko sentsibilitatea indartuta, esaterako, baina baita aukera abertzaleak sendotuta ere; EAJren hegemonia finkatuta edota EH Bilduren "zigorrezko" botoa sustatuta. Izan ere, bi esparru politiko horiek euren jarrera politiko irmoa erakutsi dute, PSOE eta Elkarrekin Podemos taldeek ez bezala.

“Politika erabilgarria defendatzeko ordua dela uste dut”



TXEMA URKIJO AZKARATE (LAUDIO, 1961) MÁS PAÍS-EN ESPAINIAKO KONGRESURAKO BIZKAIKO ZERRENDABURUA DA.

Zergatik aurkezten zara Más País alderdiko hautagai gisa igandeko hauteskundeetara?

Ez dut alderdi politikoen ikuskera dogmatikorik. Koiuntura oso zehatz bat dago une honetan, gobernu aurrerakoi bat eratzeko negoziazioen porrotak sortutakoa. Uste dut hori arduragabekeria handia izan zela prozesu horretan parte hartu zuten bi alderdi politikoen partetik. Horregatik, uste dut baldela ordua politika erabilgarri bat defendatzeko, alderdien interesak interes orokorraren gainetik jarri gabe, hori izan baita gobernu osaketa porrotera eramane duena. Uste dut Más País-ek nik defendatzen dudana politika erabilgarriaren balioak islatzen dituela. Horregatik eman dut pausoa, ardurajarrera batetik, nik uste.

Kataluniako egoera bete-betean sartu da hauteskunde kanpainan. Zer irakurketa egiten duzu horren gainean?

Jende guztiak zekien gai hori hauteskunde kanpainan sartuko zela. Hauteskundeak data honetan egitea erabaki zuenak bazekien 'Procès'-aren sententziarekin topatuko zela. Jende guztiak zekien sententziak Kataluniako jendartearen sekto-

re garrantzitsu baten erantzun indartsua eragingo zuela eta, era berean, espainiar nazionalismoaz elikatzen diren alderdien (Vox edota PP) erantzun bat eragingo zuela. Arduragabekeria handia izan dela uste dut.

Elkarrizketarako oinarriak finkatu behar dira. Ezinezkoa da Kataluniako arazoa legearen inposaketa hutsarekin konpontzea. Elkarrizketak abiatu behar dira, kataluniarren arteko akordio bat erdiesteko lehenbizi, eta Kataluniaren eta Espainiaren arteko adostasun bat lortzeko gero.

Nola ikusten duzu igandeko hauteskunde biamuramuna? Orain arteko blokeoa errepikatuko dela uste duzu?

Kezkaz bizi dut, akordioa erdietsi ez zuten alderdiek ez dutelako inolako autokritikarik egin, orain arteko berdina defendatzen ari direla dirudi. Kezkagarria da hori. Berdina gertatuko dela pentsatzeak beste aukera batzuk bozkatzea eramane dezake jendea. Zentzu horretan, uste dut gure aukera aproposa izan daitekeela negoziazioan aritu ziren alderdiak bozkatu dituen eta desilusia eta desgainua sentitu dituen jende guztiarentzat.

“Euskal Agenda defendatzera joango gara Madrilerara, bestela ez duelako beste inork egingo”



ALMUDENA OTAOLA URKIJO (OKONDO, 1973)
ESPAINIAKO SENATURAKO EAJ-REN ARABAKO
ZERRENDABURUA DA.

Zergatik aurkezten zara EAJko hautagai gisa igandeko hauteskundeetara?

Euskal Agenda defendatzera goaz Madrilerara, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta udalen agenda. Euskadiren eta, nire kasuan, Arabaren interesak defendatzera joango gara.

Argi geratu da Espainiako ordezkariek ez dutela gure politika babesten, nahiz eta hemengoak izan. Adibide bat jarri dezaket: Isabel Celaá ministroaren kasuan, bekekin zer egin duen ikusi dugu. Espainiaren interesak defendatzen dituzte, ez Euskadi eta Arabarenak.

Kataluniako egoera bete-betean sartu da hauteskunde kanpainan. Zer irakurketa egiten duzu horren gainean?

Guk argi utzi dugu zein den gure jarrera gai horrekiko. Gatazka politikoa dago Katalunian, eta gatazka politikoei politika eginez eman behar zaie aterabidea, ezin dira

judzializatu. Kataluniarekin egongo gara, beti bezala, aurrera egin eta irtenbide bat lortzeko.

Nola ikusten duzu igandeko hauteskundearen biharamuna? Orain arteko blokeoa errepikatuko dela uste duzu?

Gobernua eratzea espero dugu, beharrezkoa da. Urtebete daramagu gobernuarik gabe eta hori oso kaltegarria da. Akordio batera heldu behar direla uste dut, bai ala bai. Hori da politika egitea: akordioak lortzea. Elkarrizketa eta akordioak baliatuta osatu behar dute gobernua.

Gauza bat argi dago: EAJ ez badago inork ez du euskal agenda defendatuko. Guk baino ez dugu hori egiten.

Alderdi gehienek ez dute hori defendatzen, eta beste batzuk beste talde parlamentarioetan sartzen dira eta ez dute euskal agenda defendatzen. Argi geratu da gu gara hori egiten duten bakarrak. Gauzak hala, ez dago beste aukerarik.

“Eskuin autoritarioa geldiaraztera joango gara Madrilerara”



GARAZI DORRONSORO GARATE (AMURRIO, 1990)
ESPAINIAKO SENATURAKO EH BILDUREN ARABAKO
ZERRENDABURUA DA.

Zergatik aurkezten zara EH Bilduko hautagai gisa igandeko hauteskundeetara?

EH Bilduk euskal herritarren ahotsa eramango du Madrilerara, eta eskubide sozial eta politikoen defentsa irmoa egingo du. Horrez gain, autodeterminazio eskubidea eta autogobernua defendatuko ditugu. Baina, bereziki, eskuin autoritarioari fretoa jartzera joango gara. Hezkuntza, osasuna, lan baldintza duinak, pentsioak... horiek guztiak murriztu egin dituzte Madrilen, eta murrizketa horiei aurre egitera joango gara bertara. Euskal preso eta iheslaririk egon ez dadin ere egingo dugulan, emakume euskaldunen ahotsa ere izango gara... Laburbilduz, injustizien aurrean justizia eskatzera joango gara Madrilerara, noizbait bertara itzuli behar ez izateko.

Kataluniako egoera bete-betean sartu da hauteskunde kanpainan. Zer irakurketa egiten duzu horren gainean?

'Procès'-ak argi utzi du estatua egiturazko krisi batean sartu dela eta une honetan ez duela aldaketarako betarik ematen. Bi aukera daude: orain arteko blokeoan jarraitzea edo 78ko erregimenari aurre egingo dioten

prozesu subiranistak martxan jartzea. Espainiako estatua eta alderdiak ez dira aldaketa horretan egongo. Horregatik ez diote utzi nahi herriari erabakitzen. Bozkatzea ezin da sekula delitua izan. Horren aurrean oso garrantzitsua da herri subiranisten artean lortutako akordioa. Gainera, ziur gaude indar metaketa honek etorkizunean fruitu gehiago emango dituela.

Nola ikusten duzu igandeko hauteskundearen biharamuna? Orain arteko blokeoa errepikatuko dela uste duzu?

Arabaren aukera hobezina sortu zaigu oraingoan ere. Apirilaren 28an inork espero ez zuena lortu genuen arabarrok. Asko dago jokoan, eta aukerak argiak dira: edo EH Bilduk ordezkaritza lortzen du edo Alderdi Popularrak lortuko du. Demokrazia edo inboluzio demokratikoa, eskubideak edo murrizketak. Hori dago jokoan. Horregatik, ezkerrekoak eta aurrerakoiak sentitzen diren arabarrok bozkatzea deitzen ditugu. Balio demokratikoetan sinisten dugun arabarrok EH Bilduri eman behar diogu bozka datoren igandean.

elkarrizketa

“Nire pinturak Erdi Aroa eta gaurkotasuna bateratzen ditu”

JOSE LUIS ABAJO “PORRILLO” (Burgos, 1946) URDUÑAKO ERAKUSKETA ZENTROAREN FATXADA MARGOTZEAREN ARDURADUNA IZAN DA. HIRIAREN ERDI AROKO ESTILOAREKIN HAUSTURA EGITEN DUEN PINTURAREN ALDEKO APUSTUA EGIN DU.



Testua eta argazkia
Julen Solaun Martinez

Zer dela eta hautatu zaituzte Urduña Hiria Erakusketa zentroaren fatxada margotzeko?

Udalak eraikuntza honetan zer edo zer egin nahi zuen, eta ea zer egin ahal zitekeen galdetu zidaten. Herriko lanbide tradizionalekin figurazio bat egitea proposatu zidaten: Zurgina, zapataria, pastelgilea... ea nola geratzen zen aztertu genuen estudioan, eta emaitza onik ez zuela ematen ikusi genuen. Hainbeste leiho eta elementurekin figurazioak kalitatea galtzen zuen.

Gainera, mota honetako figurazioak zaharkituta daude. Gauza modernoagoa egitea beharrezkoa zela pentsatu nuen, zirrargarriagoa zen zerbait, garaikideagoa zena. Orduan, geometria mota hau egitea erabaki genuen, eta diseinatzaile grafiko batek egin

zuen. Nik ideia bat eman eta zer motatako geometria nahi nuen esan nion, baina bera da honetan aditua. Kontua da Udalari proiektua bere horretan aurkeztu geniola. Egia da ere guri asko kostatu zitzaigula koloreen entonazioa aukeratzea, baina jendeari mezu bat komunikatzea bilatu genuen. Haien buruei eraikuntzaren barruan zer dagoen galdetzea, alegia. Horrela, barruan dagoena ere erabat garrantzitsua dela ikusiko dute, eraikinean sartu eta sentsazio ona izatea. Erakusketan gauza benetan harrigarriak daude. Nik margotutakoa barruan dagoenaren atariko besterik ez da.

Fatxadan egindako margolanak herriaren estilorekin apurtzen du erabat.

Bai. Gu planteamendu eta geometria bizantziarretan oinarritu gara gehienbat, eta Erdi Arokoetan ere bai. Kolore guzti hau testuinguru artistiko horren barnean

dago. Egin duguna da hori gaurkotasun testuinguruan jartzea. Urduñan Erdi Aroko inguruan gaude, baina nire margolanak ez du enbarazu egiten. Urduñako giroarekin bat egiten du, Erdi Aroa eta gaurkotasuna bateratzen ditu.

Arte bizantziarra aipatu duzu inspirazio bezala. Izen konkreturik al duzu buruan?

Nik tendentzia asko ditut; margolari asko gustatzen zaizkit, inpresionistak batez ere. Errealismo magikoa, errealismo espainiarra eta abstraktua ere gustatzen zaizkit. Ez dut izen zehatzik izan buruan. Denetatik hartu dut pixka bat nire pertsonalitate propioa bilatzeko.

Geometriatik aparte, gehien nabarmentzen dena kolorea da. Nola aukeratu duzue?

elkarrizketa



“Geometria bizantiarretan oinarritu gara gehienbat”

Aipatu bezala, asko kostatu zaigu kolore hauetara heltzea. Ez dago ia urdinik, ez dago gorri indartsurik. Kolore bero baina argiak dira, nahiz eta pastel izatera ez diren heltzen. Kolore hauen artean armonia bilatzea izan dugu helburu, pastela abiapuntu bezala erabiliz, baina indartuta. Ez dago kolore karrankaririk, horrek dena apurtuko bailuke. Urduñak dituen Erdi Aroko koloreen antzekoak dira, baina pastel tonalitate pixka bat handiagoarekin.

Margolana gauzatzeko orduan teknika berezirik erabili duzue?

Ez. Diseinatzaile grafikoak geometria egin eta hemen in situ margotu dugu, laukitu ostean. Estudioan hasieran egin zena gauzatu besterik ez dugu egin.

Nola gauzatu duzue proiektua?

Zonaldeetan banatu dugu. Kolore gama hasi aurretik erabat prest utzi genuen, eta gero zonaldeetan banatu dugu, eraikuntza osoa aldamiotz ez inguratzearren. Horrela errazagoa da lanean gauden hirurontzako.

Zer motatako erantzuna jasotzen ari zarete jendearen partetik?

Entzuten ari garenagatik, jendeari gustatzen ari zaio. Udaleko zinegotziak biztanleei gustatuko ez zitzaientzen beldur ziren hasiera batean, ausarta baita. Hala ere, bilera nagusian sei zinegotzi zeuden alkatearekin eta lauri lehenengo unetik gustatu zitzaientzen; erreakzio hori ikusita zer edo zer ezberdina egiteko akordiora heldu ziren, eraikuntzaren mamia aldatuko zukeen zerbait. Guk kontzeptu lirikoa bilatu dugu, poztasunarekin lotua dagoena. Kolore hauek emozioak sortzen dituzte, baina benetako zirrara barruko erakusketa ikustea da, gauza benetan miragarriak daude: gure arbasoen aspaldiko kontzeptuak daude han.

“Erakusketa zentroaren fatxadarekin iradoki nahi dugu eraikinak, Erdi Arokoak edo duela berrehun urtekoak, eraldatu ahal direla, pinturak gauzak eraldatzen dituztela”

Etorkizunari begira, zure margolan honek Urduñako beste eraikin batzuetan eragina izango duela uste duzu?

Ez dakit Urduñan. Baliteke haustura bat suertatzea eta beste edonon antzeko zerbait egitea. Hemen askatasun alternatiba ematen ari gara. Eraikinak, Erdi Arokoak edo duela berrehun urtekoak, eraldatu ahal direla, pinturak gauzak eraldatzen dituztela iradoki nahi dugu. Garrantzitsua dela uste dut. Lehen etxe gehienak antzeko eran margotzen ziren, eta hiria pobre geratzen zen. Nire ustez, garrantzitsua da koloreen arloan aurrera egitea, askatasun gehiago izatea.

Olatz Salvador eta Leihotikan

aritutako dira Zolloko
Jaietan jotzen

Anboto.org



Ohiko eskema jarraituko dute Zolloko sanmartinek. Datorren ostiralean -azaroak 8- hasiko dira. 20:30ean izango da txupinazioa. Handik ordu erdira egingo dute herriafaria eta erromeria egongo da gero, Beranduegi taldearekin. Larunbatean egun osoa gozataraua egongo da herrian. Goizean umeentzako puzgarriak egongo dira frontoian. Ondoren, gazte bazkaria egongo dute. Arra-

ordu erdiro egongo dira autobusak. Itzultzeko, aldiz, 4:30etik 6:30ra egongo dira, ordu erdiro baita ere.

Igandea askoz lasaiagoa izango da. Ugaoko Sarea abesbatzaren kontzertua eta Roberto eta Idoia trikitilarien emanaldiak egongo dira. Astelehenean San Martingo dirua. Astelehenean San Martingo dirua ospatuko da eta 16an herri bazkaria egongo dute jaietamaiera emateko, urtero bezala.

Astelehenetik igandera luzatuko dira Lezamako jaiak

Datorren asteko astelehenean hasiko dira Lezamako jaiak. Meza, zozketa, argazki herrikoia eta nagusientzako bazkaria egongo dituzte, besteak beste. Baina egun nagusia larunbata -azaroak 16- izango da. Hainbat jarduerak egongo dituzte egun horretan: San Pedro mendira bi-

Inma Roiz idazle okondorak bere liburu berria aurkeztuko du ostiralean -azaroak 8- Okondoko Kultur etxean, 19:30ean. *El viaje de Aixa* da eleberriararen izenburua. Rober Garay ilustratzaileak ere hartuko du parte so-lasaldian.

Inma Roizek bere liburu berria aurkeztuko du



Egitarian zabala

Urduñako Musika
Astean



Musika tradizio handia dago Urduñan. Azaroan argikusi ahal izango da hori, Musika Astea egongo baitute hilaren 9tik 24ra bitartean. Hainbat jarduerak egingo dira ekimen horren barruan. Azaroaren 17an, adibidez, Disney-ren filmeetako soinu bandak joko ditu Santa Zezilia bandak Alondetian. 23an, aldiz, emanaldi bateratua egongo dute hiriko hainbat musika taldek.

Horrez gain, Poteo Musikatua-ren VIII. edizioa antolatuko du Liborio kolektiboak. Bi asteburuz luzatuko da ekimena, hila-ren 15etik 23ra bitartean.

MUSIKA

11.09 Larumbata
20:30 URDUÑA
ARTEON HAUREN
ABESBATZAREN EMANALDIA
Santa Maria

11.15 Ostirala
URDUÑA
POTEO MUSIKALA
19:00 // Lucia y el Lerdo
19:30 // Lee Junior
20:00 // Peri Fly
23:00 // The Idems
Hiriko tabernetan

11.16 Larumbata
URDUÑA
POTEO MUSIKALA
13:00 // Gorka Naste
13:00 // 14 cuerdas
13:30 // Carlos Velasco Duo
13:30 // Bohemian Soul
13:30 // Tobacco Road
14:00 // Asuca Nama
18:00 // Tatoman
20:30 // The Cherry Boppers
23:00 // Hierro Toro Salvaje
Hiriko tabernetan

11.16 Larumbata
20:00 LAUDIO
AGUXTIN ALKHAT
kontzertuaren sarrera 5 eurokoa izango da Faktoriako bazkide ez direnentzat, eta bazkideentzat aldiz, 3 eurokoa. Haurrek ez dute sarrearik ordainduko.
Faktoria

11.17 Igandea
13:15 AMURRIO
ARABA KANTAN: VICENTE
GOIKOETXEA ABESBATZAREN
EMANALDIA
Jasokundeko Andra Mariren
Eliza

HITZALDIAK

11.08 Ostirala
18:30 LAUDIO
"MAITASUN
ERROMANTIKOAREN MITOA
ERALDATUZ"
Kasinoa

11.08 Ostirala
19:30 OKONDO
"EL VIAJE DE AIXA"

LASTERKETA
28. orrian topatu daiteke
probari buruzko informazioa
Foru plaza

BESTELAKOAK

11.08 Ostirala
ZOLLO
ZOLLOKO SANMARTINAK
20:30 // Txupinazioa
21:00 // Herri afaria
22:30 // Erromeria
Beranduegi taldearekin
Herriko frontoian

11.09 Larumbata
OROZKO
ABELTZAINZA AZOKA
Goizean zehar egingo da,
Itxina taldearen eskutik
Zubiaur plazan

11.09 Larumbata
ZOLLO
ZOLLOKO SANMARTINAK
11:00 // Puzgarriak
15:00 // Gazte bazkaria
20:30 // Aizkolariak
22:30 // Kontzertuak: Olatz
Salvador, Leihotikan eta
Tximeleta
Herriko frontoian

11.10 Igandea
ZOLLO
ZOLLOKO SANMARTINAK
12:30 // Ugaoko Sarea
abesbatzaren emanaldia
trikitilariak
Herriko frontoian

11.11 Astelehena
ZOLLO
ZOLLOKO SANMARTINAK
12:30 // Pelota partiduak eta
Etxebarrria trikitilariak
19:00 // Dangiliske dantza
plaza eta amaitzean txerria
Herriko frontoian

11.10 Igandea
10:00 OROZKO
"ZUREZ ERAIKITZEAREN
ARTEA" IBILALDIA
Orozko Museoa

11.16 Larumbata
ZOLLO
ZOLLOKO SANMARTINAK
15:00 // Herri bazkaria
Roberto eta Idoia
trikitilariak
22:00 // Jai amajera



Kartelera



LAUDIOALDE
ARETOA

**Hasta siempre
hijo mío**

AZAROAK 9
LARUNBATA (3 euro)
17:30 / 20:00



AMURRIO
ANTZOKIA

Mascotas 2

AZAROAK 10
IGANDEA (3,75 euro)
17:30



DONIBANE
ARETOA

**El silencio de la
ciudad blanca**

AZAROAK 10
LARUNBATA (3,5 / 4,5 euro)
19:00



AMURRIO
ANTZOKIA

Tomboy

AZAROAK 12
LARUNBATA (Dohainik)
18:00



AMURRIO
ANTZOKIA

**Mientras dure
la guerra**

AZAROAK 10, 11
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:30 / 20:00



DONIBANE
ARETOA

**Dora y la
ciudad perdida**

AZAROAK 10
LARUNBATA (3,5 / 4,5 euro)
16:30



LAUDIOALDE
ARETOA

**El cuento de
las comadreas**

AZAROAK 16
LARUNBATA (3 euro)
17:30 / 20:00



DONIBANE
ARETOA

**La oveja Shaun:
Granjagedón**

AZAROAK 17
LARUNBATA (3,5 / 4,5 euro)
16:30

Gizarte etxeko

laguntzaileen

afaria egingo
dute 15sean

Arrankudiagako Gizarte Etxe-ko laguntzaileen afaria egingo dute datorren azaroaren 15ean, ostirala, 21:00etan. Bertan parte hartzeko beharrezkoa izango da Gizarte Etxean dagoen taldearen izena ematea, hilaren 11a baino lehen.

TAILERRA

11.07 Oteguema

18:00 LUIAONDO
AUTODEFENTSA FEMINISTA
TAILERRA
Ludoteka

11.07 Oteguema

18:30 ARTZINIEGA
ERREHABILITAZIOARRAKO GIMNASIA
Pentsiodunen kluba

11.16 Larumbata

10:00 URDUÑA
AUTODEFENTSA FEMINISTA
TAILERRA
Berdintasuna@urduna.com
helbidera idatzi behar da matrikula egiteko
Alondeglia

11.18 Astelehena

11:00-13:00 AMURRIO
SMARTPHONE ETA TABLETA ERABILTZEN IKASTEKO IKASTAROA
Azaroaren 18tik 26ra eskainiko da dohako ikastaroa
KZ Gunea

11.19 Asteartea

10:30 LAUDIO
ERORIKOAK EKIDITEKO
TAILERRA
Kultura etxea

KIROL JARDUERAK

11.06 Asteazkena

19:30 LAUDIO
ATHLETIC-BARAKALDO
Athletik Clubeko eta Barakaldoko emakumeen taldeen arteko norgehiagoka
Elitakuriko kirolgunea

11.11 Igandea

AMURRIO
GOROBEL MENDI IBILALDIA
29. orrian topatu daiteke ibilaldiari buruzko informazioa
Juan Urrutia plaza

11.10 Igandea

URDUÑA
URDUNAKO III. MENDI

Inma Roiz idazleak bere liburu berria aurkeztuko du Kultura etxean

11.11 Astelehena

17:00 URDUÑA
“NOLA ERAGITEN DU DIABETESAK OINETAN?”
Jubilatuaren klubean

11.17 Igandea

10:00 OROZKO
“BASOKO TENPLUAK”
IBILALDIA
Orozko Museoan

11.17 Igandea

17:00 LAUDIO
ZURRUMURRU ARRAZISTEN AURKAKO TXOKOLATADA
Herriko plaza

INFO +
aiaraldea.eus

**EZAGUTU
KARAOKE
BERRIA!**

**OSTIRAL ETA LARUNBATETAN
AZAROAK 15, 16, 22, 23**

**23:00 ETATIK
AURRERA**

**KARAOKE + ARTISTA
GONBIDATUA**

**ABESTU ARTISTA ADITU
BATEKIN BATERA!**

Aldai enparantza
LAUDIO
672 23 50 65
www.tolobar.com

To10
Restaurant

Herriko frontoian

kultura



Pokemon Go, jarraitzaileak elkartzan dituen jokoa

Laudioko Abastos plazaren alboan bildu hori dira zaleak. Aiaraldea.eus

2016ko udan hedabide guztietan agertu zen Pokemon Go sakelako jokoa. “Boom” horren ostean fenomeno ahanzturan erori zela zirudien, baina jokalarikopurua ez da murriztu. Kontrara, biderkatu egin da. Aiaraldean maiz batzen dira elkarrekin aritzeko.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Ziur irakurle batek baino gehiagok noizbait harriduraz ikusi duela azken urteotan heldu, gazte eta haur talde bat elkarrekin, norbera bere sakelakoaren pantailara begira. Herri-guneetan batzen dira aldiro eta agertzen diren moduan sakabanatzen dira. Talde anitz eta misterioitsu horien atzean joko bat dago: Pokemon Go.

Sakelakoan instalatu daitekeen doako denborapasa hori 2016ko udan agertu zen modu zirrargarrian. Hedabide guztie-

tan aipatzen zuten eta aste horietan gazte eta nerabe kuadrillak han-hemenka ibiltzen ziren sukar arrarobaten menpe Pokemonen bila, oporrak baliatuta.

Hala ere, eztanda horren ostean, Pokemon Go hedabideetatik desagertu zen. Ez, ordea, jokalarien artetik. Abuztuan 1.000 milioi deskarga izan zituen aplikazioak eta eskualdea da horren isla, gero eta jende gehiago sartzen baita buru-belarri jolastera.

Gainera, adinak ez dauka inolako garrantzirik. Esaterako, Laudion oso aktiboak dira Juan Lechado eta Jose Antonio Lopez. 61 eta 48 urte dituzte, hurrenez

hurren, eta jokalarisutsuak dira. Lechadok hasieratik bereganatu zuen, “2016ko uztailearen 13an, hain zuzen, kaleratu zuten egunean”. Lopezek, aldiz, urtebete beranduago ekin zion.

Bientzat entretenimendu hutsa eta osasungarria da. Biak daude erretiratuak eta Pokemonak ehizatzea aitzakia bikaina da kalera ateratzeko eta paseatzeko. “Nik muga fisiko ugari ditut eta ezin naiz mendira joan, kaltetik soilik ibili naiteke” nabarmendu du Lechadok. Jokoa bere ibilbideen datuak neurtzen ditu eta lekukotza adierazgarria ematen du: Lechadok 15.000 ki-

133 kide daude Pokemon Aiaraldea whatsapp taldean. Bertatik zabaltzen dituzte hitzorduak

lometro baino gehiago bete ditu. Lopezek, aldiz, 5.000 kilometrotik gora.

Gauzak horrela, hasieran haurrei lotutako joko bezala salto egin bazuen hedabideetara, azkenean mota ugari lagunek erabiltzen dute. “Nik Madrilgo 80 urteko jendearekin jokatu dut, eta Laudion 65 urteko beste jokalarikopurua ere badago, adibidez” azaldu du Lechadok.

Taldeka dibertigarriagoa da Pokemon Go banaka jokatzeko asmakizuna da. Norberak daukan denbora eskaini diezaioke, baina ez du baztertzeko talde-

ka aritzeko aukera. Hori baliatuta, Niantic enpresak (jokoaren sortzaileak) gertakariak iragaritzen dituzten, jokalariek deialdiak egiten dituzte batzeko eta elkarrekin helburuak betetzeko. Lopezek argitzen duen moduan:



Abuztuan 1.000 milioi deskarga izan zituen aplikazioak eta eskualdea horren isla da, gero eta jende gehiago sartzen baita buru-belarri jokatzera. Gainera, adinak ez dauka inolako garrantzirik


“Kondairazko Pokemon bat askatzen dutenean batzen gara. Jokalari bakarrak ezin du harrapatu; hortaz, guztion artean egiteko elkartzen gara. Beste kasu batzuetan, balio handiko Pokemona agertzen da inguruan eta elkarrekin joaten gara guztiok lortzeko”.

Hitzorduek zabaltzeko “Pokemon Aiaraldea” whatsapp taldea osatu dute eta nahi duenak eskatu diezaieke baimena sartzeko eta parte hartzeko. Orain 133 kide daude, adin guztikoak eta herri ugariak -Urduña, Okondo, Luaiondo, Artziniega, Arespalditza, Amurrio, Orozko...-, eta etengabeko mugimendua dago; jokalaria batzuek uzten badute, berriak sartzen dira berehala.

“Jendea ezagutzeko parada ona da. Batzuetan kaletik noa eta ume batzuek agurtzen nauten badakitelako 'Uno de Audio' jokalaria naizela. Beste batzuetan Juanekin geratzen naiz kafe bat hartzeko eta apur bat jokatzeko” erantsi du Lopezek.

Jokoaren mekanika

Pokemon Gok proposatzen duen funtzionamendua erraza



Jose Antonio Lopez eta Juan Lechado (goiko argazkian) 61 eta 48 urte dituzte, hurrenez hurren, eta Pokemon Go-ren jokalaria sutsuak dira. Aiaraldea.eus

da: ahalik eta Pokemon gehien harrapatu behar dira eta puntuaketa goren erdietsi behar da. Animalia birtual horien arrautzak eklosionatzeko 2, 5 edo 7 kilometroko ibilbideak bete behar dira.

Hori ez ezik, Pokemonak ehitatzeko beharrezkoak dira bola batzuk ere eta horiek eskuratzeko “geltokietara” jo behar dago. Oro har, leku horiek herriko puntu esanguratsuetan daude; historikoak edo adierazga-

Juan Lechado laudioarrak 15.000 kilometro baino gehiago egin ditu jokatzeko

riak direlako. Gainera, Niantic-ek “geltoki” berriak onartzen ditu, erabiltzaileek proposatuta. “Laudion Ruperto Urkijoko monumentua, eliza edo graffitiak dira” argitzen du Lopezek. “Gimnasioetan” aldiz, Pokemonak sortzen dira, harrapatu ahal izateko.

Jokoaren interesa berri eta pizteko, noizean behin diseinu berriak plazaratzen dituzte eta jadanik 500 Pokemon baino gehiago daude. Bost belaunaldi

dira eta apurka-apurka egiten dituzte erronken bidez. Horrez gain, tokiko Pokemonak ere badaude. Kasu horietan, bidaiariekin ados jartzen dira jokalariek, beste lurralde batetik hona ekartzeko eta partekatzen.

Jokoaren onurak

Lechado eta Lopezek argi dute Pokemon Go joko hutsa dela, baina ohitura osasungarriak sustatzen dituela uste dute: “Kalera atera behar zara

kultura

ibiltzera. Gu erretiratuak gaude eta obrak ikusten edo tabernan alkohola edaten aritu ordez, nahiago dugu jokatzera eta paseatzera. Ez diogu kalterik egiten inori, guztiz kontrakoa, "geltokien" bitartez zure herriko eta inguruko aberastasun kulturala ezagutu dezakezu eta. Gainera, noizbait aspertzen bagara, utziko dugu eta listo".

Pokemonen fenomenoa


Jende askorentzat Pokemon (Pocket Monsters hitzen batura) marrazki bizidunen bidez egin zen ospetsu. Berez, Euskal Herrian ikusteko aukera izan bai-

Jokoak ohitura osasungarriak bultzatzen dituela defendatzen dute zaleek

no lehen, Pokemonek zoritxarreko ospea lortu zuen mundu osoan telesailaren atal batek 600 ume baino gehiagorengan krisialdi epileptikoak eragin zituelako koloreen aldaketa azkarraren ondorioz.

Edonola ere, "Pokemon" kontzeptua hori baino lehenago garatu zuten, Game Boy bideokontsolan agertu baitzen lehenengo aldiz. Denboraren poderioz, Ash, Pikachu, Brock edota Team Rocketaren abenturak pop kulturaren ikur bilakatu dira. Horren adierazle da sakelako jokoak izan duen deskarga kopurua.





URTZI ODRIOZOLA
GAME ERAUNTSIA

Pokemon GO ez da desagertu oraindik

2016ko urriaren amaierako erreportajearen esan genuen "bukatzear dagoen udako sukarra" zela Pokemon GO, eta zati batean behintzat arrazoia genuen. Izan ere, hasierako shouffle hori hilabete gutxiren buruan hustu zen. Ez ordea guztiz.

Oraindik ere gure kaleetan Pokemon Go jokalaria ikus ditzakegu han eta hemen bueltaka mugikorrari so, munstro txikien ehizan. Gazteak dira ikusiko dituzuen gehienak, baina ez denak. Gazte izandako batzuk ere ibiltzen dira, baina hauek nahiago izaten dute gaez jolastu. Lotsa eta aurreiritziengatik? Laneko eta etxeko ordutegiarekin bateragarri izateko? Auskalo. Baina, ilunabar aldera jokoaren puntu esanguratsu batzuetara hurbilduz gero, jokalaria taldeak aurkituko dituzu iturri, edota eskulturaren baten bueltan mugikorrarekin jo eta ke.

Kontua da, jokalaria masa minimo bat lortu duela jokoak eta azken aldi argitaratu dituzten berrikuntzekin, jarraitzaile andana bat mantentzea lortu dutela. Kostata, baina Niantic-eko garatzaileek ikusi zuten, nahiz eta Pokemon unibertsoaren atarkepean egindako aplikazio bat izan, marka eta izena baino zerbait gehiago behar dituela jokalarien artean gustagarri izaten jarraitzeko.

Egia da, jokatzeko modu berri bat bezala saldu zutela, errealitate areagotua eta geolokalizazioa moduko elementuak normalizatu zituztela, nahiz eta Pokemon Go ez zen honelako teknologia integratu zituen lehen jokoak izan. Eta teknologikoki zerbait berria zela erakustek, jokalaria ikaragarri pila gerturatu zituen, baina, jokoaren mekanika oso errepikakorra zen, eta horrekin batera akats askorekin argitaratu izanak bere faktura pasa zion.

Berandu, baina akats teknikoak konpontzeaz gain, jokalarien artean Pokemonak pasatzeko aukera, Pokemon aniztasun gehiago aurkitzeko modua eta bestelakoak sartu dituzte berrikuntza gisa. Etengabeko berrikuntza ezinbestekoa izango du beste hainbat urtetan mantendu nahi badute.



 **Iñaki
Ruiz de Pinedo**

 **Garazi
Dorransoro**



Ekitaldi politikoa **AMURRION**

azaroak 7
San Antoneko
aterpea
19:00

ehbildu

Iñaki
berriro

BAIETZ!

Kultura

“Musikaren hiria” mapan jartzen



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

80. eta 90. hamarkadak oso oparoak izan ziren Euskal Herrian musika sorkuntzari dagokionez. Urduña ez zen salbuespena izan. Musika talde andana eratu zen hirian bi hamarkada horietan, gerora mantendu den ondare kultural bat sortuz.

Hori izan zuten hizpide iragan urriaren 24an Urduñako Alondegian antolatutako mahainguruan. Adratan elkarteak koordinatu zuen solasaldia, Liborio kolektiboarekin batera, Europako Ondare Jardunaldien barruan. “Guztiok dakigu Urduñan ondare musikal handia dagoela, tradizio handikoa”, azaldu zuten elkarteko kideek saioaren hasieran, “1561. urtekoa da lehen erreferentzia. Urte horretako dokumentu batean agertzen da danbolin-jotzailearen figura. Ez dago lehenagoko erreferentziarik, sute batek hiriko dokumentuak suntsitu zituelako”. Urduñako musika bandaren bilakaera ere aipatu zuten Adrataneko kideek, hiriko abesbatzarekin eta musika erlijiosoaren presentziarekin batera. “Baina ezin dugu ahaztu gabe utzi egon den musika ludikoa, bakarlari eta taldeek sortua”, gaineratu zuten, “80. hamarkadaren erdialdean agertu zen musika hori. Aurretik zetozen dinami-kekin apurtu zuen mugimendu hark, bide berri bat eraikiz”.

1561. urtekoa da Urduñako musikaren lehen erreferentzia, urte horretako dokumentu batean agertzen da danbolin-jotzailearen figura

La Depre, "inflexio puntua"
Sarrera horren ostean eman zieten paso mahainguruko sei partaideei. Urduñako musikariak ziren seiak, hainbat belaunalditakoak. La Depre taldearen bideo bat proiektatu zuten lehenbizi, talde hura izan baitzen Urduñako musikagintzan "inflexio puntua" eragin zuena. Hiriko lehen punk taldea izan zela esan daiteke. Abesti azkarrak plazaratzen zituzten, Urduñari zein garaiko

egoera sozial eta politikoari lotutako letra labur eta bortitzekin. "1984-1987. urteen artean aritu ziren jotzen", oroitu zuen taldeko kide izandako Javi Peña 'Toro'k. Garai latzak izan zirela nabarmendu zuen musikariak: "Ez zegoen entseatzeko tokirik. 15 urte nituen jotzen hasi nintzeanean, eta gainontzeko taldekideek ni baino 9 urte gehiago zituzten, zoramen hutsa zen". Hiriko lehen punk jaialdiak ere garai horretan antolatu ziren. "Holanda eta Italiako jendea zetozen kontzertuak eskaintzera, Laudiotik igaro ostean".

La Depreren ostean talde segida luzea etorri zen. "La Mina Liborio izan zen horietako bat, La Depre baino apur bat xamurragoa zen", azaldu zuten solasaldian, "hortik aurrera 38 urtean kontaezin ahala talde sortu dira, bakoitza bere izaera pro-

La Depre taldeak inflexio puntua eragin zuen Urduñako musikagintzan 1984-1987 urteen artean

pioarekin".

Bigarren belaunaldia

90. hamarkada ere oparoa izan zela nabarmendu zuten mahainguruan. Aratxu Oiarzabal Rebellion taldeko abeslaria zen, eta Aduanan entseatzeko zuten, erai-kin hori oraindik berritu gabe zegoenean. "Ni mutilen talde batean jotzen hasi nintzen Laudiotiko skuatean, Ira zuen izena. Eraikin hura desalojatu zutenean Urduñara mugitu ginen, Aduanako lokaletara, eta horrela sortu zen Rebellion taldea, hainbat emakumeren artean". Garai hartan emakumezko erreferente gutxi zeudela oroitu du Oiarzabalek, "atzerrikoak ziren gehienak, eskualdean ez zegoen bat bera ere ez. Ni heavya nintzen, eta nire taldekideak oso punkiak. Gure letrak oso erradikalak ziren".

Sobrino Sobrado, La Cabaña de Bixente, Kilkerrak... makina bat talde eratu ziren beranduago. 2006-2009. urteen artean loraldi berri bat jazo zen. "2006an gazte asanbladak merkatu plazako toki guztiak okupatu zituen eta gaztetxe bilakatu zuen eraikina", oroitu du Eriz Perezek, "entsegu lokalak egin ziren eta bi talde sortu ziren: Eskremento eta Vomitando al personal. La Depreren garaiko ispiritua man-

tentzen zuten biek".

Alex Del Campo nerabea zen garai hartan. "Nire adineko guztiok entzuten genuen punka. 2013. urtean 30.06 taldea sortu genuen lagun batzuen artean, gero Etenik Ez etorri zen eta, amaitzeko, Voltium". Gitarra jotzen du Del Campok talde horretan, eta Javi Peña 'Toro' du bide-lagun, baxuarekin. Urduñako lehen eta azken belaunaldiak, talde berean jotzen. "Ni gaztetan GBH entzuten nuen eta aurtengo Otxomaioetan eurekin jotzeko aukera izan dugu", aipatu zuen Peñak solasaldian.

Gaur egungo egoerari dagokionez, ikuspegi ezezkorragoa dute mahainguruan parte hartu zuten kide gehienek

Gaur egungo egoera

Gaur egungo egoerari dagokionez, ikuspegi ezezkorragoa plazaratu zuten mahainguruko kide gehienek. "20 urtetik beharako gazteek ez dute rockaz ezer jakin nahi", ziurtatu zuen Aratxu Oiarzabalek. "Guk ate bati ostikoa eman behar izan genion jo ahal izateko, eta orain ez da halakorik egin behar, gehitu zuen Javi Peñak. "Garai hau da orain arte bizi izan dudandua. Inoiz baino kontzertu gutxiago egiten dira eta inoiz baino jende gutxiago doa emanaldietara", salatu zuen Kepa Calvok. Eriz Perez, aldiz, baikorrerago agertu zuen: "Salbuespenak daude. Urduñak oasis txiki bat izaten jarraitzen du. Udal igerilekuetako kontzertuen edo poteo musikatuaren harreraizugarria da oraindik".

"Musikaren hiriburua"

Gauzak hala, hiriko ondare musikala balioan jartzeko beharra nabarmendu zuten mahainguruan. "Askotan ez gara konturatzen hemen daukagunaz kanpoko batek esaten digun arte", nabarmendu zuen Iñigo Arrizabalagak, "Konpadres muertos talde mexikarreko kideak lehen aldiz etorri zirenean aipatu zuten hau 'musikaren hiria' dela, eta egiada. Nik behintzat ikasten jarraitzen du entsegu bakoitzean".



Sobрино Sobrado taldeak jo zuen mahainguruaren ostean. Behean, La Depe eta La Mina Liborio taldeen argazkiak. Aiaraldea.eus eta Chechu Mingo

Aiaraldeko euskararen historia

VI. Atala: Euskararen
galera Baranbion

AKETZA MERINO

Historialaria

Bonaparte Printzearen esanetan, 1857an euskaraz predikatzen ari ziren misiolariak Baranbion eta 1860an euskara bizi-bizirik zegoen herri honetan. A. Kanpionek 1884an euskara nagusi zela herrian adierazi zuen. 1970eko hamarkadan, Federico Barrenngoak azken baranbioar euskaldunak ezagutu eta elkarrizketatu zituen, XIX. mendeko azken urteetan jaiotakoak. Batez ere, Intxutaspe auzoan jaiotakoak ziren, Baranbioko euskararen azken gotorlekua dirudien lekuan. Horiatariko batek adierazi zuenez, ezkondu arte (1920an gutxi gorabehera), euskaraz mintzaten ziren guztiak eta euskaraz egiten zen otoitz Garrastatxuko santutegian. Testigantza hauek nahiko ezagunak dira eta erraz aurki ditzakegu bibliografian.

Baina orain arte ez zaio arreta handirik jarri Manuel Lekuonak esandakoari, nahiz eta oso informazio interesgarria utzi zigun bere garaian, 1934. urtean hain zuzen. Bere hitzetan, urte horretan, Baranbion “amar bat baserri besterik ez dira euskaldun”; baina esanguratsuagoa da hurrengo urtean esandakoa, hau da, etorkinen etxeetan baino ez zela euskaraz egiten, Orozkotik, Dimatik eta Igorretik joandakoenetan. Bertokoek, “erabiltzen ez duten arren, ogeita amabost urtetik gorakoetan %95ek ba'dakite, ederki egiteko eran jakin ere. Ogeita bostetatik ogeita amabost artekoetan %50ek trakets xamar egiten dutela ezik: ez bait-dute oiturarik. Emendik bera amabost urte arte %15ek aditu bai baño itz egin ez. Gañerakoak ez itz egin, ez aditu. Berdin kalean eta base rian”.

Ondorioz, Lekuonaren arabera, 1900. urtea baino lehen jaiotako

tako ia guztiek zekiten euskaraz; 1900 eta 1910. artean jaiotako erdiak ulertzeko eta pixka bat hitz egiteko gai ziren. Gure ustez, lehen eskuko informazioa izan zuen Lekuonak, datu horiek guk Bilboko erroldatik hartu ditugunekin bat dartzelako. 1920. urteko erroldako datuek ziurtatzen dute euskara 1890era arte nagusi izan zela eta harrezkero etorri zela hizkuntzaren beherakada. Dirudienez, nahiko bat-batekoa izan zen aldaketa Baranbion, auzo eta baserri batzuetan luzaroago iraun bazuen ere.

Bilbon, 1920. urtean, 83 baranbioar zeuden; 54 (%65,6) euskaldunak ziren. Erdaldunei dago-

kiez, adinguztietakoak ziren baina kasu batzuk susmagarri samarrak iruditzen zaizkigu eta zalantzan jartzen ditugu. Adibidez, ez dugu uste bikote gipuzkoar baten semeak, 1855ean jaiotak, euskararik ez jakitea oso arrunta izango zenik Baranbion. Gure ustez, posible da Bilbon urte asko eman eta gero hizkuntza ahaztu izana edo trakets aritzea eta, horregatik, ez zekiela esatea; bestalde, agian, euskarari buruzko aurreiritziekin lotuta egon zi-

tekeen euskalduntasuna ukatzea. Gainera, bere emazte baranbioarra erdaldun bezala sailkatu zen ere.

Laudion ez bezala, aurkitutako anai-arrebak euskaldunak edo erdaldunak ziren guztiak, bikasutan izan ezik, nahiko susmagarriak direnak gainera. Lehen, Urrutia Ilarramendi ahizpen kasua: Petra, 56 urtekoa eta

euskalduna, baina Francisca, 58 urtekoa eta erdalduna. Bigarrena, Muguruza Cendegui anai-arreben kasua: Leandrok (32 urte) bazekien baina Martinek (24) eta Damianak (41) ez. Hala ere, hauek erroldan baranbioar moduan agertu arren, Astobitzan eta Inoson jaiotakoak ziren. Baina inguru horretaz hurrengo batean hitz egingo dugu.



Negua, tratamendu estetikoak egiteko garairik onena

Adituek diote negua dela tratamendu estetikoak egiteko garairik onena. Horretan aritzen diren profesional ugari daude eskualdean. Horrez gain, azala eta ilea zaintzea komeni da, neguko klimak eta tenperatura aldaketa bortitzek hainbat kalte eragin ditzaketelako. Horren aurrean, hidratazioa eta elikadura osasuntsua mantentzea da funtsezkoena.

Negua garai hobezina da estetika tratamenduak egiteko, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, eguzkiak ez du azalean horrenbeste eragiten. Bestetik, tratamenduaren osteko eragozpenak hotzarekin beroarekin baino hobeto jasaten dira. Hainbat tratamendu daude neguan egiteko aproposak direnak. IPL (Intensed Pulsed Light) da horietako bat. Estresak, eguzkiak eta aireko toxikoen azalean eragindako kalteak kentzean datza prozesu hori. Peeling kimikoa da beste tratamendu posible bat, azala berriz hidratatzeko balio duena.

Izan ere, berebizikoa da azala zaintzea. Udan eguzkiaren UVA izpi asko jasotzen ditugu, eta irradiazio ultravioleta horrek eragina dauka azalean eta ilean.

Neguan, aldiz, tenperatura aldatetek eta hotzak zein berogailuek eragindako deshidratazioek kalteak sortu ahal dituzte. Horregatik, garrantzitsua da azala hidratatua mantentzea, dermatosi motaren bat (dermatitis atopikoa, psoriasis...) duten pertsonen kasuan. Emoliente bat baliatu daiteke hidratazio hori bermatzeko.

Dutxan ura muturreko tenperaturetan ez jartzea ere aholkatzen dute adituek. Ur oso hotz edo oso beroa jarri ordez, erdibideko tenperatura bat jartzea gomendatzen dute, epela.

Eguzkiari dagokionez, komenigarria izan daiteke eguzkitako betaurrekoak erabiltzea, are gehiago elurra egiten duen kasuetan.

Negua garai hobezina da zenbait estetika tratamendu egiteko. Horrez gain, komenigarria da ilearen eta azalaren egoerari erreparatzea, urteko garai honetan gertatu daitezkeen hainbat gaitz prebenitzeko


Elikadura ere zaindu behar da. C bitamina eta antioxidatzaileak kontsumitzea gomendatzen dute adituek, eta egunean 1,5-2 litro ur edatea.

Horrez gain, akne kasuak ugari egiten dira neguan. Hori prebenitzeko hainbat gomendio ematen dituzte adituek: prozesatutako jakiak barazkiengatik aldatzea, ur asko edatea, xaboi beharrezkoa denean soilik erabiltzea eta jakiei sodio bikarbonatoa gehitzea (baina ez gehiegi, kantitate handian azala lehortu dezakeelako).

Ilea zaintzea

Ilea zaintzea ere komenigarria da neguan. Berogailuek eta txamarrek sortutako beroak ileen kutikulak kaltetu ditzakete. Horren aurrean, olio bidezko tratamenduek kalte hori prebenitu dezakete. Ilea kizkurtzea da neguan gertatu daitezkeen beste fenomeno bat, aterki eta txanoek elektrizitate estatikoa sortu dezaketelako. Zorionez, badaude hori prebenitzeko baliatu daitezkeen produktuak. Hezetasun falta ere kaltegarria izan daiteke, zahia agertzea eragin dezakeelako. Horregatik, ilearen hidratazioa bermatzea gomendatzen dute adituek, maskarillak baliatuta.

Aipatutako gomendioetako asko etxean egin daitezke. Beste batzuetarako, aldiz, komenigarria izan daiteke eskualdeko estetika zentro batera jotzea.



KOLOORE ESTETIKA

Zure gorputza errespetatzen dugu, tratamendu ez-inbaditzaileak eta kosmetiko ekologikoak erabiltzen.

Gorputz- eta aurpegi-tratamenduak
Diatermia
Diodo laserra

SENTSAZIOAK OPARITU
denboraldiko erritualekin

MENDIKO SEKRETUAK
GABONETAKO IPUINA
ZURE BIDEA ELIKATU



605 74 72 29 · Izaskun Udaeta · Larrinaga kalea 4, 5 behea AMURRIO

Yaso
Gabonetarako opari-bonuak!
JASONE MEABE
Masaje zentrua
Terapia alternatiboak
Estetika
Baías 7, Audio ☎ 688 696 619
BELÉN ANDRÉS
Psikologia eta Mindfulness
☎ 665 714 596

RITI ILEPAINDEGIA RITI PELUQUERIA
DEGIA RITI PELUQUERIA RITI ILEA
LEAP RITI A RITI
PELUQUEI RITI LEAPAINDEGIA
LEAPAINDEGIA RITI ILEA
RITI RITI ILEPAINDEGIA RITI RITI
RITI
Batzalarrin 2 - LAUDIO ☎ 94 672 11 88

MIMS
Ileapaindegia
Produktu naturalekin lan egiten dugu:
• Buztin-kolorazioa
• Ilerako terapiak
Lamuza 25, LAUDIO · 94 672 53 82

larmintz
estetika
• Manikura eta pedikura normala eta semipermanentea
• Depilazioa (laser eta argizariarekin)
• Aurpegi-tratamenduak
• Solarium horizontala
• Makillajea
Zumalakarregi 30, Audio 94 672 42 65
☎ 679 387 787

kultura

Azarotik otsailera arteko egitaraua aurkeztu du Burubio Kultur Elkarteak



Moonshine Wagon taldea igoko da kultur elkartearen oholtzara datorren abenduaren 13an. **Dena Flows**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Inoiz baino indartsuago hasi zuen ikasturtea Burubiok, Berri Txarrak taldeak Amurrioko kultur elkartearen oholtzara eman baitzion hasiera Beude birari. "Kontzertu horrek oihartzun handia suposatu zuen guretzat", azaldu zuen elkarte kidea den Egoitz Palaciosek, baina nabarmendu zuen Burubio "hori baino askoz gehiago" dela. Eta bada. Hori argi ikusi daiteke datozen hilabeteetarako prestatu dituzten emanal-

diei erreparatuta. Iragan asteburuan Lukiek eta Mocker's taldeak igo ziren Burubiko oholtzara. Datorren azaroaren 15ean, aldiz, Empty Files eta Sega Sound Killers taldeen txanda izango da.

Abenduan ere eskainiko dituzte kontzertuak. 13an Goiatz Dutto musikari audioarraren Moonshine Wagon taldeak joko du. 20an, aldiz, metal doinuek hartuko dute aretoa, Eraso! eta Eratu taldeen eskutik. Urtarrilaren 24an oraindik iragartzeke dagoen talde batek joko du. Amaitzeko, otsailaren 8an Ga-

rilak 26 taldeak eskainiko du kontzertua, eta handik bi aste-
ra (22an) Burubio Splash jaialdiaren bigarren edizioa egingo dute.

Entsegu lokalak

Kontzertu aretoaz gain, musika taldeentzako entsegu lokalak ere kudeatzen ditu Burubiok. Iragarri dutenez, lokal horietako bat libre geratu da. "Alokatzeko interesa duenak burubioko@gmail.com helbidera idatzi dezake informazio gehiago jasotzeko", jakinarazi dute elkarte kideek.

Filma laburren rallya egingo dute Orozkon azaroaren 30ean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Abian dago Orozkoko Laburmetrai Lehiaketaren IV. edizioa. Aurtengo edizioa berezia izango da, "rallya" antolatuko baitute azaroaren 30ean. Parte hartzaileek goizeko bederatzietan eman beharko dute izena Supelaur elkartearen lokalean. Ondoren, arratsaldeko seiak arte izango dute tarte lanak grabatu eta aurkezteko.

Bi baldintza bete beharko dituzte bideoek: 3 minutuko iraupena izatea gehien jota, eta euskaraz grabatuak egotea edo euskarazko azpigituluak izatea. "Parte hartzaile bakoitzak bere grabaketa tresna propioak eraman beharko ditu, baina antolakuntzatik wifi eta jatekoa eskainiko ditugu", jakinarazi dute Supelaurreko kideek. Elkarte horrek antolatu du egitasmoa, Orozkoko Udalarekin elkarlanean.

Ohiko lehiaketa

Rallyaz gain, film laburren ohiko lehiaketa egingo dute. Supe-

laur.kt@gmail.com helbidera bidali beharko dira bideoak, azaroaren 30a baino lehen. Lanek 10 minutuko iraupena izan ahalko dute gehienez eta, rallyan bezala, euskaraz grabatuak egon beharko dira edo euskarazko azpigituluak izan beharko dituzte.

Sariak

Azaroaren 30ean bertan proiektatuko dira pelikula guztiak, 19:00etan Donibane Aretoan. 250 euroko hiru sari egongo dira: rallyko film onenarena, lehiaketako pelikula onenarena eta publikoarena.

"Pizgarria"

Film laburren lehiaketa antolatzen dute laugarren aldian izango da aurtengoa. "Lehen edizioak harrera oso ona izan zuen, herrian eginiko hainbat pelikula aurkeztu baitziren", oroitu dute Supelaur elkarte kideek, baina aitortu dute hurrengo bi edizioetan "beherakada" egon dela. Horregatik erabaki dute ekimenari buelta bat eman eta rallya "pizgarri" moduan txertatzea.


"No eres de Orduña si no" Facebook taldea itxi du kudeatzaileak, mehatxuak jaso ostean

Testua
Aitor Aspuru Saez

"No eres de Orduña si no" izeneko Facebook taldea itxita egongo da behin-behinean. Horrela jakinarazi du bere kudeatzailea den Aitor Martinezek.

Urduñarrak azaldu du mehatxuak jaso dituela eta, hori dela eta, hausnartu behar duela zein izan behar den taldearen kudeaketa eredua, horrelakorik berriro gertatu ez dadin.

Izan ere, Martinezek zabaldu du zenbait erabiltzailearen mehatxuak jaso dituela euren argitalpenak ezabatzeagatik. 7 urte



Itxita dago Facebook taldea. **No eres de Orduña si no**

igaro dira taldea sortu zuenetik eta bolada horretan irainak eta mespretxuak ere pairatu dituela adierazi du urduñarrak.

Horregatik guztiagatik, sortzaileak erabaki du Facebook taldea ixtea, konponbidea bilatu bitartean.

Piano taupadak ikuskizunaren bideoa Aiaraldea.eus atarian osorik ikusgai



Amurrio Antzokian eskaini zuten emanaldia. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan irailaren 29an eskaini zuen Izaskun del Cerro musikari urduñarrak "Piano taupadak" ikuskizuna Amurrio Antzokian,

eskualdeko hainbat sortzailekin elkarlanean. Emanaldi berezi hori bideoz jaso zuen Aiaraldea hedabideak, eta iragan astelehenean sareratu zen Aiaraldea.eus atarian. Bertan ikusi daiteke osorik.



ANA CALLEJAK (Laudio, 1997) AGERPEN TXIKI BAT EGIN DU ZINEMAN ESTREINATU BERRI DEN *EL SILENCIO DE LA CIUDAD BLANCA* FILMEAN. GAINERA, HAINBAT IBILTOKITAN DESFILATU DU, ETA DUBAI ETA INDIAN EGON DA MODELO LANETAN,



Testua **Julen Solaun Martinez**
Argazkia **Caché Fotografía**

Nolatan aukeratu zintuzten filma grabatzeko?

Filmaketa Gasteizen izan zen. Zuzendariak paper horretarako aberaskumeak behar zituen, pixka bat galantak. Orduan, ni nagoen modelo agentziara joan ziren, jende bila. Nik, pelikularen parte izan nahi nuenez, curriculuma bidali nuen; jende asko zegoen. Ez dakit kantitatea zehatz-mehatz, baina 300 pertsona inguru geunden. Ez nuen inodik inora espero deitzea. Astebetera dei bat jasonuen paper nahiko garrantzitsua interpretatzeko.

Nolako izan zen filmaketa batean egotearen esperientzia?

Patxi Urkijoren film batean aritu nintzen, baina hau handiagoa izan zen. Izugarria da, jende gehiago dago kameratik kanpo barruan baino! Zoramena da.

Zenbat egun egon zineten?

Gasteizen zazpi edo zortzi egun, askoz jota. Gero, Madrilen beste bi egun igaro genituen. Gau bat eta bi egun. Ostatur ordaindu zidaten, denetarik.

Belen Rueda, Javier Rey eta Aura Garridorekin batera egon zinen. Zer ikasi zenuen horrelako jendearekin batera lan egiten?

Oso klase altukoak dira, ez dakit nola azaldu. Haiek badakite zuk badakizula eurak nortzuk diren, badakite ezagutzen dituzula. Kontua da haietako batzuek haien burua serioegi hartzen dutela, baina beste batzuk umilagoak dira. Hoberen, Itziar Ituñorekin moldatu nintzen,

Basaurikoa da eta euskaraz eta guzti hitz egin genuen. Besteekin, nahiz eta jatorrak izan, tratu gutxiago izan nuen.

Pelikulaz aparte, zer egin ohi duzu modelo agentzian?

Desfileak egiten ditut batez ere, hoberen moldatzen naizen arloa baita. Gero, marken arabera, argazkigintza ere egiten dut, baina ibiltokia nahiago dut. Jende famatuarekin desfilatu dut bertan: Teresa Helbig, Alicia Rueda, Santos Costura... Askok daude, nazioartean ere garrantzitsuak direnak.

Zer maiztasunarekin desfilatzen duzu?

Urtean bi desfile handi egiten ditut: udazken-negukoa eta udaberri-udakoa. Agentziaren partetik, bi horiek bakarrik dira. Baina gero, jendeak gogoko bazaitu eta zure kontaktuen arabera, bizimodua ateratzen duzu. Norbaitek zurekin argazki saio bat egin nahi badu, eta ados bazaude, egiten duzu; nahiz eta negua izan.

Zeintzuk dira zure betebeharrak agentzian mantendu ahal izateko?

Bat ere ez. Noizbehinka, zer edo zer puntuala egin nahi duzun galdetzen dizute. Esaterako, datorren astean desfile bat daukat Bilbon eta beste bat Donostian, baina bi egun solte dira bakarrik. Hilero abisatzen dizute zerbait badago, eta egitea interesatuko litzazukeen galdetzen dizute.

Agentziarekin zer nolako asmoak dituzu etorkizunera begira?

Momentuz haiekin jarraitu nahi dut. Nazioartean ere

mugitu naiz, Dubai eta Indian egon naiz. Orain are urrunago joateko esan didate, baina horretarako oso bideratuta egon behar zara. Gutxienez hiru hilabeterako bidaia da, eta hiru hilabete denbora asko da, batez ere, nire kasuan bezala, ikasketak badituzu, edo beste edonolako bizitza baduzu: nik, adibidez, zaldi bat daukat. Mantendu beharra dago.

Nolako izan zen zure esperientzia Indian?

Oso gogorra. Hiru hilabete kontratua nuen, baina bigarren edo hirugarren astean gaixotasun bat hartu nuen eta medikuak etxera bidali ninduen. Oso txarto nengoen.

Han zer motatako lana zenuten?

Castingetara joan behar nintzen egunero. Hautatzen bazintuzten, Amazon edo AliExpress bezalako enpresen katalogoetan hartzen zenuen parte. Jende asko ezagutu nuen han, ukrainarrak, errusiarrak...

Zer motatako giroa aurkitu zenuen castingetan modeloen artean?

Hasieran nahiko gogorra egin zitzaidan. Txarto begiratzen zidan baten bat zegoen, ni haien gainetik egotearen beldur ziren. Keinu itsusi asko egiten zituzten, baina orain badakit norekin moldatzen naizen eta norekin ez. Nazioartean, hobeto. Azken finean, haiek zure familia bihurtzen dira, egunero ikusten dituzunak direlako.

Esperientzia errepikatu nahi izango duzu?

Indiakoa ez. Milanera joateko ere esan didate, eta baliteke animatzea. Europa da, urrunago ez naiz joango.

kirola

TXIRRINDULARITZA

Ermualden amaituko da Euskal Herriko Itzuliaren bigarren etapa

Testua
Txabi Alvarado Bañares

nibela duten aldapei egin beharko diete aurre.

Amurrion hasi eta Laudioko Ermualden amaituko da Euskal Herriko Itzuliaren datorren urteko edizioaren bigarren etapa, RadioLlodio hedabideak aditzera eman duenez. Iturri horren arabera, apirilaren 7an burutuko da lasterketa hori. Txirrindulariek 3 kilometro luzera eta %11tik gorako des-

Amaiera, Bilbon

RadioLlodiok jakinarazi duenez, bi bilerak egin dituzte dagoeneko Laudioko Udalararen, Laudioar Txirrindulari Elkartearen eta Itzuliaren antolatzaileen artean. Eibarren hasiko da datorren urteko norgehiagoka. Amaiera, aldiz, Bilbon izango da.



ARITZ ARBERAS

ASTANA TALDEKO
PRESTATZAILE FISIKOA

Euskal Herriko itzulia Ermualden

Badirudi Euskal Herriko Itzulia gurera datorrela. 2016an Garrastatxu bisitatu zuen eta 2020an Ermuko Andra Mari bisitatu du, azken urteetan txirrindularitzan hain modan jarri diren mendate formatua jarraituz, aldats beldurgarriez betetako igoera bat. Horrelakoak gurean soberan, alegia.

EHko Itzuliko helburu nabarmenetako bat munduko txirrindulari hoberenak gure errepideetara ekartzea eta gure herriak dituen parajeak munduari erakustea da. Txirrindulari eta taldeko langile gehienek Euskal Herrira etortzea maite dute, zaleek lasterketa bizitzeko duten modua, pasio eta ilusioa, munduko leku gutxitan topatzen diren ezaugarriak aurkitzen dituzte hemen. Hori bai, irakasgaia ondo ikasita dakarte eta hemen ondo jaten dela bai, baina zira eta aterkia ekarri behar direla ere badakite.

Euskal txirrindulariei denboraldi hasieran zein lasterketan egon nahi duten galdetzen diezunean, guztiek etxeko lasterketa markatzen dute lehen aukeren artean. Herri txikia gara baina euskal txirrindulari asko dugu lehen mailako pelotoian, emaitza bikainekin. Lorpen honen erru handia era eskuzabalean lan egin duen eta egiten jarraitzen duen pertsona askorena da. Txirrindularitzan hasten ari diren gaztetxoekin astebururo herriz-herriz, lasterketak antolatzen eta administrazioarekin borrokan dirua lortzeko.

EHko Itzulia gure errepideetara bueltatzen denean Ermuko Andra Marira, ez dira lasterketa ikustera igoko. Bidegurutzeak babesten ikusiko dituzue, antolakuntzarekin elkarlanean, guztiok lasterketaz gozatu ahal izateko. Bejondeiela eta bide batez, munduan kokatzen gaituzten ekitaldiei bai, baina hori gurean eta guretik ahalbidetzen duen beste guztiari ere bai. Ezinezkoa bata bestearen faltan.

“Oso proba indartsua izan dezakegu maratoian jartzen genituen indarrak lasterketara bideratzen baditugu”



URDUÑAKO MENDI LASTERKETAREN HIRUGARREN EDIZIOA ANTOLATUKO DA AZAROAREN 10EAN. BERRIKUNTZA BEZALA, AURTEN EZ DA AURREKO BI EKITALDIETAN IZANDAKO MARATOIA ANTOLATUKO, ETA BI DISTANTZIA EZBERDIN IZANGO DIRA SOILIK. **ANARTZ GONZALEZ PUEYO (URDUÑA, 1990)** ANTOLATZAILEAK LASTERKETAREN NONDIK NORAKOAK KONTATU DITU.

Testua
Julen Solaun Martinez

Mendi lasterketaren hirugarren edizioa da aurten, baina ez da maratoirik ospatuko. Zer dela eta?

Bai. Esan bezala, hirugarren edizioa da bakarrik, eta orain arte guztiak izan dira haien artean ezberdinak. Hala ere, aurreko urteetan ikasitakoarekin, probaren kalitatean salto bat eman nahi dugu aurten. Esaterako, pasa den urteko lasterketa ertaina orain nagusia izango da. Uste dugu, maratoian jartzen genituen indar guztiak lasterketa motzago batean jartzen baditugu, lasterketa oso indartsua egin dezakegula.

Hala ere, lasterketa laburra luzatu duzue (iaz laburrenak 12,5 kilometro zituen, eta aurten 18). Zergatik zirkuituaren birmoldaketa hori?

Hiru lasterketa hiru ibilbiderekin antolatzeak arazoak sortzen zizkigun, batez ere lasterketan hainbatetan elkartzen zirelako; nahasmena sortzen zuen korrikalarien artean.

Horregatik, aurtengo ibilbide laburrak nagusiaren lehenengo

hamabi kilometroak eta azkenengo bost kilometro berberak egingo ditu.

Uda giroa egon da orain arte, baina badirudi eguraldi txarra datorrela. Nolako zirkuitua espero duzue?

Hostoak erortzen hasi dira eta eguraldi kaskarrak lokatza sortuko du. Horri daukagun ibilbide magikoa gehitzen badiogu, eszenatoki ezin hobea izango dugula uste dut.

Kirol mailari dagokionez, zer nolako ikuskizuna espero duzue aurten?

Pasa den urteekin alderatuta, aurten korrikalariak bi lasterketan bakarrik arituko direnez, lehia estuagoa espero dugu.

Partaideen artean faboritorik? Baditugu, bai, baina ikusi beharko dugu. Mendian edo zer gertaliteke eta helmugaraino heldu beharra dago.

Zer nolako eragina izango du partaidetzan maratoia ez ospatzeak?

Oraindik goiz da edonolako baloraziorik egiteko, lasterketa os-

patu ostean egin beharko ditugu. Hala ere, apustu handia izan zen maratoi batekin hastea, fruitu onak eman zizkigun. Baina ikusiko dugu etorkizunak zer dakarren.

Prezioaren harira, zenbat partaide behar dituzue lasterketaren errentagarritasuna bermatzeko?

Errentagarritasuna lortzeko formularik onena, partaideen gehieneko kopurua proba ospatu baino hilabete bat lehenago beteta izatea da, eta oraindik ez dugu lortu. Udalararen dirulaguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke horrelako lasterketa bat antolatzea.

Aipatu bezala, hainbat eratan aldatu da lasterketa aurreko urteekin konparatuta. Datorren urterako planik duzue dagoeneko?

Aurten Euskal Mendizale Federazioaren rankingeko partaideak izango gara. Hau da, aurreko urteekin konparatuta ezberdina izango da proba eta, ondorioz, lasterketa amaitu ostean balorazioa egin eta erabakiak hartu beharko ditugu.

MUGENDOA

Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa egingo dute Mugendo eskolan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Emakumeentzako autodefentsa ikastaroa egingo dute Amurrioko Mugendo eskolan azaroaren 23tik 26ra, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta. "Bizitzan jazo daitezkeen hainbat egoera planteatuko dira", azaldu dute eskolako kideek, "teknika erraz eta eraginkorrak landuko dira, ez da aurretiazko inolako esperientziarik behar". Zehaztu dutenez, "eraso fisikoei

zein ahozkoiei" erantzuteko teknikak irakatsiko dituzte: "erasotzailearen indarra bere aurka erabiltzeko, amorrua norbere onurarako kontrolatzeko eta beldurra murrizteko".

Dirua, Askabide elkartera

Tailerrean parte hartzen dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Bildutako dirua Askabide elkartera bideratuko da. "Bertaraten diren emakume guztiek kolore moreko mugendo gerriko bat jasoko dute oroigarri bezala".



MAIDER LOPEZ ECHABE
KAZETARIA

Emakume jokalarien eskubideak eta hurrengo belaunaldien etorkizuna borrokatzen

Emakumezkoen futbol ligan historian zehar ez da inoiz grebarik egon. Orain, lehenengo hitzarmen kolektiboa bultzatzeko helburua dela medio, azaroaren 16 eta 17tik aurrera, jokalariek profesionalak mugagabeko grebari ekingo diote. Urte batean zehar onuragarriak izan ez diren 18 bileran izan ostean, Primera Iberdrola txapelketa osatzen duten jokalariek, grebara jotzea erabaki dute beraien eskubideak eta emakumezkoen futbolaren etorkizuna jokoan dagoelako.

Nahiz eta merituak egin, futbolista profesionalek ez dute langabezia gozatzen eta jokalariek gehienek alderdikeria ez da %75era heltzen. Gezurra dirudi albistegietan daukaten protagonismoa eta azkenengo urtean lortu diren helburuak kontuan hartzen badira. Zoritxarrez, emakume jokalariek futbolaz bizitzeko zailtasun gehiegi aurkitzen dituzte.

Urriaren 28an egin zen bileran hitzarmen esanguratsuetara heldu ez zirenez, Madrilen urriak 22an proposatu zena aurrera eramatea erabaki zen. Kontuan hartu behar da, Madrilen ospatu zen bileran, 180 jokalariek hartu zutela parte eta horien %93a grebara joatearekin ados zegoela. Ainhoa Tirapu, Athletic Clubeko kapitaina eta AFE futbolariaren elkarteko emakumeen batzordeko presidenteordea, izan zen bileraren bozeramailea. "Gure denboraren ehuneko ehuneko gara futbol jokalariek", azaldu zuen Iruñeko jokalariek.

Pauso bat aurrera emateko momentua heldua da emakume jokalarien eskubideak eta hurrengo belaunaldien etorkizuna jokoan daudelako.

MENDIA

Bihar amaitzen da igandean egingo den Gorobel Ibilaldian izena emateko epea

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Gorobel Ibilaldiaren XXXIII. edizioa egingo dute datorren igandean, azaroak 10. Baina izena emateko epea bihar -osteguna- amaituko da. Mendikolagunak.eus edo Zirkuittua.com atarietan egin daiteke inskripzioa. Mendi taldeko kideek eta federatuek 6 euro ordaindu beharko dituzte. Gainontzekoek, aldiz, 9 euroren truke parte hartu ahal izango dute.

Hiru ibilbide

Hiru ibilbide egongo dira guztira. Bide luzeak 42 kilometro izango ditu. Mendizaleak goizeko zazpietan abiatuko dira Juan Urrutia plaza eta Babio, Aro eta Tolgorri zeharkatuko dituzte, besteak beste.

Ibilbide ertaina 25 kilometrokoa izango da. Parte hartzaileak autobusez joango dira 8:00etan Maroñoraino, eta Ungino, Eskutxi, Goizale aterpea eta Beldandia bisitatuko dituzte, besteak beste.

Ibilbide txikia, aldiz, 10 kilometrokoa izango da. Goizeko hamarretan abiatuko da, eta Babio izango du helburu.

Argazki eta bideo lehiaketa

Antolatzaileek jakinarazi dute argazki eta bideo laburren lehiaketa burutuko dutela ibilaldian zehar. Aiaraldea hedabideak, bere aldetik, ibilaldirako dortsal bat zozketatuko du ostiralean. Aiaraldea.eus/zozketak atarian sartuta parte hartu daiteke.

AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA

EUSKARAZ BIZIKO GARA!



ABENDUAK 1, OROZKO

11:00 ONGI ETORRI EKITALDIA

11:15 "EUSKARAZ JOLASTU NAHI DUGU"

ALTXORRAREN BILA (3-6 URTE BITARTEKO HAURRAK)
TALDEEN ARTEKO **GINKANA** (7-12 URTE BITARTEKO HAUR ETA NERABEAK)

12:30 HAURRENTZAKO TAILERRAK ETA JOLAS-GUNEA

12:30 JOKOPOTEOA GAZTE ETA HELDUENTZAT

13:30 KOREOGRAFIA ERAKUSTALDIA

(10-16 URTE BITARTEKO NERABE ETA GAZTEAK)

14:00 ARRATIAKO BERTSO-ESKOLAKO BERTSOLARIAK

14:30 EKITALDIA

14:45 HERRI BAZKARIA

Txartelak salgai **OROZKOKO INDUMAN / ITXINA TABERNAN** eta WWW.SARRERAKAIARALDEAN.EUS web-gunean

15:30 HAURRENTZAKO TAILERRAK ETA JOLAS-GUNEA

16:00 KANTALDIA: ENERITZ ETA MARINA

16:30 ZINEMA EUSKARAZ HAURRENTZAT:
"ELKANO, LEHEN MUNDU BIRA"

16:30 BINGO MUSIKATUA

18:00 ERROMERIA: BERANDUEGI TALDEAREKIN

18:30 GAZTAINAK ETA TXOKOLATE-JANA

19:30 ZINEMA EUSKARAZ HELDUENTZAT:

'SOINUJOLEAREN SEMEA'



herriko plaza



Esti
Zorionak Esti zure seme-alaben partez. Muxu handi bat amatxu!

Maiane eta Jurgi



Irati
Zorionak Irati!! Bikain pasa zure urtebetetzean. Jarraitu horren arduratsu eta zintzoa izaten!!

Periko eta Mari Paz



BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Azaroaren 20an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

Leunki, goxoki		Begiko mintz	Ugatzun karraskaria	Aztien ekintza gaitzesgarriak
Kontinente bat		Egunkaria	1 eta 50	
DEITURA (Infin.) Ikusi			Bokalik gabeko aretoa	
			Zezen gaztea	
Tamaina apalekoak	Gipuzkoako hiria	Indioaren ikurra	3	
IZENA	Nafarroako udalerria	Aziendabazka	Bokalik gabeko enara	
		Arrazak		
		Bokala		
Ikaragarri				Bokala
Izana				Bokal biribila
		Zero	Soraio	
		Bokala	Ahoaren hasieran	
Ligaren erdian	Pl., barazki mota			Bokal mehea
Irri	Kontsonante bikoitza			Egile atzizkia
		Zur zati laua eta mehea		
		Potsioia		
Kukurruku			Helduak euskaldun-zeo erakundea	

Idazle audioarra

ERRAZA

7		4	6	
	2	6	9	
6	4	8	7	2
3		5	6	
	6	4	8	
8	5	3	2	6
	7	6		2
4			3	8
		9	2	5
		7	4	3

8		7	5	
	4			
	4	2	3	7
4	2		8	6
			3	4
7	5	2	4	9
8	3	9		6
	6			
1	5	9	7	2
			4	

ZAILA

	2	6	8		9
8	9	3		1	
3			4	8	
				5	
			3	2	1
8		2			
2				7	
		7		8	6
3	5	4			

1	3			6	9
		2		5	4
				7	
6	2		8	7	4
7	9	4	6	1	
	1	3			
		1	5		
4	9	8			

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Lan-eskaintzak

- Lanean istripuak ekiditeko teknikaria LAUDIO
- Mantenu elektrikoko langilea LAUDIO
- Zerbitzaria LAUDIO
- Elektrikaria LAUDIO
- Lorezaintzaile LAUDIO
- Hiri guneko eraikuntzarako langilea LAUDIO
- Eraikuntza lanetarako arduraduna LAUDIO
- Lorezaintza arduraduna LAUDIO
- Sukaldari laguntzailea LAUDIO

LAN-ESKAINNTZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Guardiako farmaziak

- Azaroak 6 YARZA eta SOLAUN
- Azaroak 7 HERNANDEZ eta MENOYO
- Azaroak 8 PEREDA eta RIVERA
- Azaroak 9 PEREDA eta A. FUERTES (errefortsua RIVERA)
- Azaroak 10 PEREDA eta A. FUERTES
- Azaroak 11 CACERES eta AIS (errefortsua PEREZ)
- Azaroak 12 PEREZ eta RIVERA
- Azaroak 13 FERNANDEZ eta C. FUERTES (errefortsua HERNANDEZ)
- Azaroak 14 IBARROLA eta SOLAUN (errefortsua PEREDA)
- Azaroak 15 YARZA eta A. FUERTES
- Azaroak 16 YARZA eta EGUIA (errefortsua A. FUERTES)
- Azaroak 17 YARZA eta EGUIA
- Azaroak 18 HERNANDEZ eta MENOYO
- Azaroak 19 PEREDA eta AIS
- Azaroak 20 RIVERA eta CACERES (errefortsua YARZA)

Zozketa



Gorobel mendi ibilaldirako dortsal baten zozketa


AZAROAK 10

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en Zozketa data: azaroaren 8an, 12:00etan.

Aiaraldea txiki

ZIKULU-SALtsa

Gure sorginak ezin du asperduraren aurkako bere edabe magikoa prestatu, osagai garrantzitsuena desagertu zaiolako. Edabe magikoaren formula sekretua denez, ezin da esan zein den osagai hori, baina uste dugu gozo-gozoa dela. Nolanahi ere, nor demontre izan ote da lapurra? Hemen ageri diren adiskideen artetik zeinek ostu ote dio sorginari osagaia? Ea asmatzen duzun.




Zenbait pista:

- Begiak zabal-zabalik ditu ●
- Belarriak ez ditu tente ●
- Ez da iluna ●
- Arrautzak erruten ditu ●
- Zomorro txikiak jaten ditu ●
- Bere espeziean bakarra da ●
- Ez da narrastia ●

Bota dadoa!

Zortzi dado hauek tranpati samarrak dira. Lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



Soluzioak

2019-20
matrikulazio epea zabalik

- Ukelelea
- Bateria
- Pianoa
- Gitarra
- Baxua
- Kantu klasea
- Haur-musika hezkuntza

Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan · 699 88 35 63

Kontra

Aiaraldetik mundura



La Directa

Nora Latatu Landaluze

JAIOTERRIA
OROZKO (1996)

BIZILEKUA
BARTZELONA



“Suteak eta barrikadak amatatu dira, baina jendeak kalera ateratzen jarraitzen du, egunero daude protestak”

Zertan zabilta Bartzelonan?

Irailetik nabil hemen eta Motion Graphics-eko master bat egitera etorri naiz, urtebetez.

Erreferenduma egiteagatik kartzelaratutako politikarien sententziaren aurkako protestak piztu direnean joan zara Kataluniara. Nola bizi izan dituzu aste hauek?

Nahiko kaotikoa izan da, egia esan. Mobilizazioak egon dira egunero hiriko hainbat lekutan, eta kalera ateratzeko beharran sentitu izan dut. Izan ere, hau Euskal Herrian gertatu izan balitz, lehen lerroan egongo nintzateke. Poliziaren presentzia oso nabaria izan da, eta jendearen aurpegietan beldurra ikusten zen.

Zein da oraingo egoera?

Giroa baretu egin da. Hain ikusgarriak ziren barrikadak eta suteak amatatutako baina hala ere jendeak kalera ateratzen jarraitzen du. Protestak daude egunero. Unibertsiteetan, adibidez, Kataluniako gazte antolakundeak gogor eutsi dio egoerari erantzun bat emateko eta hamaika mobilizazio egin dituzte eta eguneregiten ari dira: kontzentrazioak, manifestazioak, grebak...

Nola uste duzu izango direla datozen hilabeteak?

Nik uste jendeak kalera ateratzen jarraituko duela. Amorrurik handia sortu du herritarrengan 'Procès'-aren sententziak eta baita alderdi politikoek kalean gertatutakoaren aurrean izan duten izaera pasiboa, eta ez dut uste hain erraz amore emango dutenik.

tatutakoaren aurrean izan duten izaera pasiboa, eta ez dut uste hain erraz amore emango dutenik.

Kataluniatik bueltan zer ekarriko zenuke Euskal Herrira orain arte bizitakotik?

Askok harritu nau jendeak izan duen jarrera. Greba orokorraren eguneko bizi izan nuena kristona izan zen. Alboko herrietako jendeak egindako martxak, kalean zegoen giro ona eta, batez ere, hainbat pentsaeratako jendea elkartu izana injustizia baten aurka elkarrekin borrokatzeko.

Ideologiak alde batera utzita, elkarrekin kalera atera eta aniztasun handiko makromanifestazio bat egitea itzela iruditu zitzaidan. Oso

hunkigarria izan zen. Euskal Herrian hau lortzeko oso urrun gaude.

Ezberdin hautematen da Kataluniako gatazka Euskal Herritik ikusita edo bertatik bizita?

Bai, oso ezberdina da. Telebistan eta sare sozialetan ikusten denak ez dauka zer ikusirik hemen bizi izan dudanearekin. Egia da iskanbilak egon direla, baina kanpotik ikusita badirudi guda batean gaudela eta ez da horrela. Jendea modu bakesuan atera da kalera, eta hori ez da ikusten.

Gainera, hiriko puntu konkretuetan izan dira isituluak eta, adibidez, ni bizi naizen lekuan dena oso lasai zegoen. Manipulazio handia egon komunikabideetan.

KATALUNIA



DESKRIBAPENA

Mobilizazio eta desobedientzia ekintzen olatu erraldoia sortu du 2017ko urriaren 1eko erreferenduma antolatzeagatik kartzelaratutako politikarien aurkako sententziak. Ehunka atxilotu eta zauritu egon dira azken asteetako protestetan

AZALERA

32.114 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

7,5 milioi biztanle.

HIZKUNTZA

Gaztelania, katalana eta aranera

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behe. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIOK BANATZAILA BOLTARIOEI:

Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunate Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA